

KOIUNTURAZ

73. zkia. – 4. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123


AURKIBIDEA

LABURPENA	1
EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA.....	7
EAEko ekonomiaren testuingurua	7
Ekoizpena eta eskaria.....	13
Ekoizpen jarduera	14
Eskariaren osagaiak	17
Kanpo saldoa	20
Lan merkatua.....	25
Prezioak, kostuak eta soldatak	31
Arlo publikoa.....	35
Finantza arloa	38
EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	45
Ingurunerako aurreikuspenak	45
EAErako aurreikuspenak	52

LABURPENA

2010eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ekonomiaren barne produktu gordina %0,6 hazi zen urte arteko tasan, hots, aurreko hiruhilekoan zein Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspena baino hamarren bat gehiago. Emaidza horrek beste erorketa baten mehatxua uxatzen du, baina atzeraldiaren irteera luzea izango dela eta krisiaren aurreko urteetako bizitasuna berreskuratzeko denbora beharko dela baieztatzen du. Ingurune herrialdeekin alderatuta, EAEko hazkunde tasa espainiar ekonomiarena (%0,2) baino hamarren batzuk biziagoa da, baina Europako batez bestearena (%2,2) baino nabarmen apalagoa. Hiruhilabete arteko terminoetan, hirugarren hiruhilekoan ez da inolako aurrerapenik lortu bigarrenarekiko.

EAEko ekonomia. BPGren bilakaera.




Iturria: Eustat.

Oro har, hirugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak zertxobait gutxitu zuen aurreko hiruhilekoan lortutako hazkunde tasa bizia (%5,0), %4,5aren inguruko balioetara hurbiltzeko.


Beste behin, bizitasun handiena garapen bidean dauden herrialdeen eremuak erakutsi zuen, Asiako potentzien gidaritzapean. Hala ere, herrialde horietan erritmoa zertxobait apaldu dela hauteman da, aurreko hiruhilabeteetako emaitza garrantzitsuen ondoren, neurri batean Txinako moteltzearengatik (%9,6), eremuko BPGri gehien ekartzen dion herrialdea baita, ekonomia gehiegi berotu ez dadin hartu zituen neurrien ondorioz. Bi zenbakiko hazkunde tasa lortua zuten inguruko beste herrialde batzuek ere (Taiwanek, Singapurrek eta Malasiak) emaitza apalagoak jaso zituzten hirugarren hiruhilekoan.

Munduko ekonomia. BPGren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera.
Urte arteko aldakuntza tasa eta indizea


Munduko BPG




Nazioarteko merkataritza indizea: 2005eko I = 100



Zazpi ekonomia nagusien BPG



Txina, India, Errusia eta Brasileko BPG



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakuntzaren datuak erabilia.

Aitzitik, herrialde garatuen multzoak zertxobait areagotu zituen aurreko emaitzak. Hain zuzen ere, estatubatuar ekonomiak %3,2an kokatu zuen urte arteko tasa, aurreko balioa bi hamarrenetan gaindituz. Orobat, Japoniaren hazkundeak %4,1era iritsi zen. Europar Batasunak, berriz, bi hamarrenetan hobetu zuen bigarren hiruhilabeteko datua eta %2,2 hazi zen. Erakunde horretako herrialdeen artean, oso portaera kontrajarriak daude eta Alemaniak (%3,9) eta Erresuma Batuak (%2,8) bizitasun handia erakusten duten bitartean, beste herrialde batzuek oso aldakuntza tasa apalak jaso dituzte. Greziarena da muturreko egoera, zailtasun handietan murgilduta jarraitzen baitu eta %-4,5eko beherakada jaso. Bizitasun gutxiko talde horretan Espainia ere dago, %0,2 baino ez baitzen hazi. Hala ere, tasa txiki horrek amaiera eman zion zazpi hiruhilabetez segidan metatutako aldakuntza negatiboko epealdiari.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010		
			III	IV	I	II	III
Europar Batasuna 27	0,5	-4,2	-4,3	-2,2	0,7	2,0	2,2
- EAE	1,3	-3,8	-4,5	-3,1	-0,8	0,5	0,6
- Espainia	0,9	-3,7	-3,9	-3,0	-1,4	0,0	0,2
- Alemania	1,0	-4,7	-4,4	-2,0	2,1	3,9	3,9
- Frantzia	0,2	-2,6	-2,7	-0,5	1,1	1,6	1,8
- Italia	-1,3	-5,0	-4,7	-2,8	0,5	1,2	1,1
- Erresuma Batua	-0,1	-5,0	-5,4	-3,0	-0,3	1,7	2,8
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	0,0	-2,6	-2,7	0,2	2,4	3,0	3,2
Japonia	-1,2	-5,2	-4,9	-1,3	4,7	2,7	4,1
Txina	9,6	9,1	9,1	10,7	11,9	10,3	9,6
India	6,4	5,7	7,9	6,0	8,6	8,8	8,9
Errusia	5,6	-7,9	-8,8	-3,0	3,3	4,5	2,7
Brasil	5,1	-0,2	-1,2	4,3	9,0	8,8	6,7

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.


Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Etorkizun hurbilekoak dauden zalantzak garrantzia handiko bi alderdik baldintzatzen dituzte: Euroguneko herrialde batzuen zor subiranoaz merkatuek erakusten duten mesfidantza eta beren dibisak ahultzeko eta prezioen bidez lehiakortasuna irabazteko herrialde batzuek onartu dituzten moneta politikako neurriak. Lehenengo kontuari dagokionez, Greziako erreskateari Irlandakoak eman dio jarraipena eta zalantzak gero eta handiagoak dira Portugaleko egoeraz, Espainiakoak ere mehatxuak agertu diren une berean. Beste aldetik, Txinak uko egiten dio oraindik yuanarentzat bere merkataritza superabitetik eratortzen den truke tasa altuago bat

onartzeari, eta AEBetako Erreserba Federalak epe luzeko zorra erosten hasi da interes tasak apaltzeko eta hazkundera bultzatzeko, dolarren balio galerari esker.

Teorian, erabaki horiek euroa kaltetzen dute, lehiakideen diruaren aldean balioa irabazi behar duelako, baina lehenago aipatu diren zor subiranoaren arazoei irabazi hori konpentsatzeko balio izan dute. Izan ere, hainbat hilabetez europar ekonomien sendotasunak eta AEBetako hazkundera iraunkortasunaz agertu ziren zalantzek euroaren balioa igo bazuten ere, joera hori azaroan galgatu da eta bi txanponen arteko truke tasa 1,366 dolarretan kokatu zen, hilabetearen azken egunean euroaren balioa 1,298 dolarretara iritsi zelarik.

Truke tasaren eta lehengaien indizearen bilakaera



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Testuinguru horretan, EAEko ekonomia %0,6 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, urte arteko tasan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Beraz, ekonomiaren susperraldia finkatzen ari da, erritmo apal batean finkatu arren. Alderaketa bat eginez, emaitza horrek hamarren batzuetan gainditzen du Espainiako ekonomiarena (%0,2), baina oso urrun dago Europako batez besteak lortutako balioetatik (%2,2).

Eskariaren ikuspegitik, kanpo eskariak egin dio ekarpen osoa barne produktu gordinari. Hala ere, benetan azpimarratu behar dena da barne eskariak utzi egin diola hazkundera hamarrenak kentzeari. Hala inportazioek nola, bereziki, esportazioek zertxobait moteldu zuten aurreko

hiruhilabeteko hazkunde erritmo bizia eta produktuari eginiko ekarpena sei hamarrenetara mugatu zen, aurreko zortzi hiruhilabeteetako baino nabarmen txikiagoa delarik. Barne eskarian, kontsumo pribatuak bakarrik lortu zuen urte arteko aldakuntza tasa positibo bat (%1,2), aurreko hiruhilabetekoa baino bi hamarren bakarrik txikiagoa baita. Datu hori oso esanguratsua da enplegurik sortzen ez bada ere eta soldata errealak igotzen ez diren arren kontsumitzaileak konfiantza berreskuratzen ari direla, gehiago gastatzen ari direla eta krisia hasi zenetik hedatu zen zuhurtziaz aurrezteko joera alboratzen ari direla iradokitzen duelako.

EAE-KO EKONOMIA. EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala	1,3	-3,8	-4,5	-3,1	-0,8	0,5	0,6
Enplegua	0,3	-3,4	-3,7	-3,0	-1,8	-0,6	-0,2
Ekoizkortasun irabaziak	1,0	-0,4	-0,8	-0,1	1,1	1,1	0,8
Langabezia tasa	3,8	8,1	8,3	8,7	8,9	9,1	8,8
Kontsumoko prezioen indizea	4,1	0,3	-0,3	0,5	1,0	1,5	1,9

Iturria: Eustat eta INE.

Administrazio publikoak onartu dituen hersturako neurriek kontsumo publikoaren bilakaera baldintzatzen dute. Horren ondorioz, urte arteko jaitsiera txiki bat (%-0,2) jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, aurreko epealdietako tasa altuetatik bat egiten ez duena. Kapitaleko eraketa gordinak behera egin zuen berriro (%-2,9), baina aurreko hiruhilabeteetan baino askoz ere gutxiago. Aldagai horren bi atal nagusietatik ekipamenduan eginiko inbertsioa izan zen agregatuaren zenbatekoa hobetzen lagundu zuena. Izan ere, bai ekipamendurako ondasunen ekoizpenak bai produktu horien inportazioak gero eta joera positiboagoa eskaintzen dute. Orobat, enpresariei egiten zaizkien iritzi inkestetatik eratortzen da ezkortasuna leuntzen ari dela.

Ekoizpen arloen analisiak erakusten du industria dela orain ekonomiaren sektore sendoa, %1,4ko gehikuntza tasa bati esker. Zerbitzuek, berriz, bi hamarrenetan bakarrik gutxitu dute bigarren hiruhilabeteko bultzada. Zerbitzuetako moteltze arin hori, neurri handi batean, merkaturatzen ez diren zerbitzuen zeinu aldaketaren ondorioa da, atzerakada txiki bat izan baitute, jarduera publikoen beherakadaren ondorioz. Beste hiruhileko batez, eraikuntzak oso nabarmen gutxitu zuen bere balio erantsia (%6,1), aurreko hiruhilabeteetan baino are gehiago

oraindik. Saldu gabeko etxebizitzaren stock handiak eta obra zibilaren murrizketak arloaren susperraldia eragozten dute.

EAEko barne produktu gordinaren gehikuntza ez da nahiko izan enplegu garbia sortzeko, baina lanpostuen galera %-0,2ra mugatu zuen hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabeteetako jaitsierak nabarmen gutxituz. Beraz, pentsatzekoa da enplegua galtzeko aldia Euskadin amaitzen ari dela. Norabide hori bera seinatzen du langabezia tasaren bilakaerak ere, hiru hamarrenetan egin baitzuen behera, %8,8an kokatu arte.

Datozen hiruhilabetei begira, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenak EAEko ekonomia suspertzeko prozesuari jarraipena emango diola baieztatzen du, 2010eko laugarren hiruhilekoan %0,8ko urte arteko tasa bat lortuta. Emaiza horri esker, urteko batez besteko hazkunde tasa %0,3an kokatuko da. Ondorengo hiruhilabeteetako hobekuntza erritmoa ahula izango da oraindik, baina 2011. urte osorako batez bestea %1,5era igozteko ahalbidetuko du, analisigile batzuek Eurogunerako aurreikusten duten zenbatekotik (%1,6) hurbil.

Oro har, barne eskaria BPGri hamarrenak ekartzen aurtengo laugarren hiruhilekoan hasiko da eta bere hazkundera areagotuz joango da. Kontsumo pribatuaren sendotasunari inbertsioaren susperraldia gehituko zaio, 2011ko bigarren seihilekotik aurrera aldakuntza tasa positiboak jasoko dituelako. Beste aldetik, kontsumo publikoa egonkortuko da, nahiz eta gorabehera txikiak ezagutuko dituen, beherantz hasieran eta gorantz aurreikuspenaren azken zatian. Eskaintzaren ikuspegitik, bai industriak bai zerbitzuek bizkortzeko joera arin baina etengabea erakutsiko dute. Eraikuntzak, ordea, ez ditu emaitza positiboak berreskuratuko 2012. urtea baino lehen. Aurreikuspen honen arabera, enplegu galera amaitutzat jo daiteke eta 2011. urtean zehar 5.000 lanpostu garbi inguru sortuko dira, langabezia tasa zertxobait jaiste ahalbidetuz. Azkenik, BPGren deflatoia %2,5ean kokatuko da datorren urtean.

EAE-KO EKONOMIA. AURREIKUSPENEN LABURPENA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2010		2011		
			IV	I	II	III	IV
BPG errealak	0,3	1,5	0,8	1,2	1,4	1,4	1,9
BPGren deflatoia	1,7	2,5	2,2	2,3	2,3	2,5	2,7
Enplegua	-0,7	0,5	0,0	0,2	0,4	0,5	0,8
Langabezia tasa	8,9	8,6	8,8	8,8	8,6	8,6	8,4

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAE-KO EKONOMIAREN EGOERA

EAEko ekonomiaren testuingurua


2010eko hirugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak sendotasun handia erakusten jarraitu zuen berriro, baina aurreko hiruhilabeteko erritmoa berritu gabe. Moneta politiken pizgarriak urratsez urrats kendu izanak eta ekonomia aurreratu nagusiek dauden desoreka garrantzitsuei aurre egiteko onartu zituzten hersturako neurri gogorrek ez zuten hazkunde erritmoa geldiarazi. Izan ere, garatutako herrialde asko aurreko hiruhilabeteko emaitzak hobetzeko gai izan ziren. Garapen bidean dauden ekonomiek, berriz, hazkunde sendoei eutsi zieten, baina nolabaiteko erritmo galera hauteman zen aurreko bi hiruhilekoetan lortutako tasa garrantzitsuen aldean.

Jardueraren bilakaera positibo horrekin batera nazioarteko merkataritzaren hazkunde garrantzitsu bat gertatu zen, eta aurtengo bigarren hiruhilabeteko hazkunde tasak errepikatu ez baziren ere, oraindik oso gehikuntza biziak (%18,1) lortu ziren. Oro har, herrialde aurreratuek kontrolpean izan zuten prezioen igoera, haietako batzuek tasa negatiboak ere jasota, baina garatzen ari diren herrialdeak inflazio presioak nabaritzen hasi ziren, beren gobernuak moneta politika gogortzera behartu zituelarik. Datu txarrena lan merkatuaren eskutik iritsi zen, zeren eta ekonomia jardueraren hobekuntza ez baitzen nahiko izan ordura arteko narriadurarekin amaitzeko.


Aurreratua izan denez, garapen bidean dauden Asiako ekonomiak berriro izan ziren munduko hazkundearen bultzagileak. Zehazkiago adierazita, Txinan, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasunak kontsumo publikoaren bultzada txikiagoa eta esportazioen moteltzea neurri batean konpentsatu zuten. Bertako BPG %9,6 hazi zen hirugarren hiruhilabetean, aurreko epealdian baino zazpi hamarren gutxiago. Moteltze horrek nolabaiteko lasaitasuna eman zion gobernuari, ekonomia horrek daukan gehiegi hazteko arriskua zertxobait gutxitu zuelako. Inflazioaren bilakaerak, ordea, datu on horiek lausotu zituen. Izan ere, urrian eta elikagaien garestitze biziaren ondorioz, Txinako KPI indizea %4,4ra igo zen eta azken bi urteko mailarik gorenean kokatu. India, berriz, %8,9 hazi zen, aurreko hiruhilabeteko emaitza hamarren bat gaindituz, manufakturen portaera onari eta nekazaritzaren gorakada bikainari esker. Inflazioa %9,7ra moteldu zen urrian eta tasa hori oraindik altua bada ere, urtarrilean jasotako %16,2 baino nabarmen apalagoa da.

Munduko ekonomia. Barne produktu gordina Hiruhilabete arteko aldakuntza tasak


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Herrialde aurreratuek ez zuten horren hazkunde sendorik lortu, baina gehikuntza tasa garrantzitsuak izan zituzten eta kasu askotan aurreko hiruhilabetean jasotakoak baino handiagoak. Izan ere, ELGE erakundea osatzen duten herrialdeak %3,1 hazi ziren, bigarren hiruhilabeteko emaitza hiru hamarrenetan gaindituz, bereziki AEBek eta Japoniak emandako bultzadari esker. Zehazkiago adierazita, ekipamenduan eta softwarean eginiko inbertsioaren sendotasunak, eta kontsumo pribatuaren bultzadak, azken honek lau hiruhilabete baitaramatza gero eta gehiago hazten, %3,2ra igo zuten AEBetako barne produktu gordina, 2004ko erdialdetik inoiz jaso duen emaitzarik onena baita. Hala ere, tasa sendo hori ez zen aski izan langabezia tasa murrizteko, %9,6an jarraitu baitzuen. Zalantzarik gabe, lan merkatua da estatubatuar ekonomiaren arazo garrantzitsuenetariko bat. Langabezia tasak hamalau hilabete eman ditu %9,5aren gainetik eta, edozein modutan, oso urrun dago azken hamar urteko batez bestea den %5,1eko tasatik. Inflazioa, berriz, kontrolpean eta egonkor mantendu zen, %1aren inguruan, deflazioaren arriskua osorik desagertu gabe.

Japoniak, berriz, ezustea eman zuen bere BPG %4,1 hazita. Yenaren balio irabazi nabarmenak pentsarazten zuen esportazioak asko gutxituko zirela eta, bertako hazkundearen bultzagile nagusia denez, barne produktu gordina kaltetuta aterako zela. Hala ere, japoniar diruaren balio irabaziak eragin mugatua izan zuen eta kanpoan saldutakoaren balioa %20 baino gehiago igo zen. Halaber, kontsumo pribatuaren sendotasunak eta inbertsioaren susperraldiak gaur eguneko ekonomia orekatuenen artean kokatu dute Japonia, bai barne eskariak bai kanpo eskariak ekarpenak egiten dizkiotelako hazkundeari. Prezioen bilakaerak ere bat egin zuen norabide positibo horrekin eta urrian %0,2 igo ziren. Datu positibo hori garrantzitsua den arren, goizegi da beheranzko hoge hilabeteko epealdia amaitutzat jotzeko, Japoniako Bankuak berak deflazio aldiaren amaiera 2012ko hastapenetan kokatzen baitu. Azkenik, langabezia tasa %5,0an geratu zen irailean, krisi ekonomikoa hasi baino lehen zegoen langabezia maila berreskuratuta.

Europako ekonomia jarduerak bide onetik jarraitu zuen. Kontsumo pribatuaren susperraldia finkatu zen hirugarren hiruhilekoz jarraian hazi zelako. Horri izakinen aldakuntzaren bultzada gehitu behar zaio. Beraz, Europar Batasuna %2,2 hazi zen hirugarren hiruhilabetean, aurreko emaitza bi hamarretan gaindituz. Hala ere, gehikuntza tasa horrek agerian utzi ditu Europako eremuaren barnean dauden ezberdintasunak, zeren eta Alemania eta Frantzia sendo hazi ziren bitartean, Grezia tasa negatibotan trabatuta geratu baitzen.

Hainbat urtez hazkundea kanpo saldoaren bilakaeran oinarritu ondoren, Alemanian barne eskaria hasi da orain txanda hartzen. Hain zuzen ere, Alemaniako inbertsioaren sendotasunak eta kontsumo pribatuaren susperraldi garrantzitsuak bigarren hiruhilabeteko hazkunde erritmoari eustea ahalbidetu dute. Frantziaren gehikuntza tasa ez zen horren handia izan, baina beste urrats bat eman zuen bere ibilbide leun eta gero eta biziagoan. Kontsumo pribatu

egonkor batek barne eskaria gidatu zuen eta inbertsioak bere jaitsiera gutxitu zuen, kanpo saldoaren atzerakada txikia konpentsatuz. Erresuma Batuak, berriz, susperraldi sendoenetako bat bizi zuen. Atzeraldia gaintitzen denbora gehien behar zuten Europako herrialdeetako bat izan arren, bi hiruhilekotan bakarrik merkataritzako bazkide askoren hazkunde erritmoa gaintitu du dagoeneko. Kontsumo publikoaren zein pribatuaren indarrak eta inbertsioaren sendotasunak %2,8ra eramane zuten BPGren hazkunde tasa.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

	2008	2009	2009		2010				
			III	IV	I	II	III	Iraila	Urria
BPG erreala									
AEB	0,0	-2,6	-2,7	0,2	2,4	3,0	3,2	---	---
Japonia	-1,2	-5,2	-4,9	-1,3	4,7	2,7	4,1	---	---
EB - 27	0,5	-4,2	-4,3	-2,2	0,7	2,0	2,2	---	---
- Alemania	1,0	-4,7	-4,4	-2,0	2,1	3,9	3,9	---	---
- Frantzia	0,2	-2,6	-2,7	-0,5	1,1	1,6	1,8	---	---
- Erresuma Batua	-0,1	-4,9	-5,4	-3,0	-0,3	1,7	2,8	---	---
Inflazioa									
AEB	3,8	-0,4	-1,6	1,4	2,4	1,8	1,2	1,1	1,2
Japonia	1,4	-1,4	-2,2	-2,0	-1,2	-0,9	-0,8	-0,6	0,2
EB - 27	3,7	1,0	0,4	1,0	1,7	2,0	2,1	2,2	2,3
- Alemania	2,8	0,2	-0,4	0,3	0,8	1,0	1,2	1,3	1,3
- Frantzia	3,2	0,1	-0,5	0,4	1,3	1,5	1,6	1,6	1,6
- Erresuma Batua	3,6	2,2	1,5	2,1	3,3	3,4	3,1	3,0	3,1
Langabezia tasa									
AEB	5,8	9,3	9,6	10,0	9,7	9,7	9,6	9,6	9,6
Japonia	4,0	5,1	5,4	5,2	4,9	5,2	5,1	5,0	---
EB - 27	7,0	8,9	9,2	9,4	9,6	9,6	9,6	9,6	9,6
- Alemania	7,3	7,5	7,6	7,4	7,3	6,9	6,7	6,7	6,7
- Frantzia	7,8	9,5	9,6	10,0	9,9	9,8	9,9	9,9	9,8
- Erresuma Batua	5,6	7,6	7,8	7,8	7,9	7,8	7,7	---	---

Iturria: BEA, Japoniako Bankua eta Eurostat.

Europar Batasuneko inflazioak ez zuen aldaketarik izan hirugarren hiruhilekoan zehar, eta zertxobait egin zuen gora urrian, %2,3ra arte. Europako ekonomia nagusi guztiek -salbuespen bakarra Erresuma Batua delarik, urrian %3,1eko tasa jaso zuelako- %2,0aren inguruko hazkunde izan zuten. Langabezia tasak %9,6an jarraitu zuen hirugarren hiruhilekoz jarraian,

langabezia maila jaistea lortu zuen herrialde bakarra Alemania izan zelako. Eremu horretako gainontzeko ekonomietan aurreko hiruhilabeteko langabezia maila mantendu zen, ia aldaketarik gabe. Langabezia tasa gorenak defizitaren arazo larrienak dituzten herrialdeetan daude. Izan ere, Irlandan, Grezian edo Portugalen langabezia tasak %10 gainditu zuen, eta Espainian %20aren inguruko tasetan egonkortu da. Tasa horiek adierazten dute 23,1 milioi pertsona daudela lanik gabe.

Zazpi hiruhilekoz jarraian jaitsierak bildu ondoren, Espainiak urte arteko hazkunde tasa positiboak berreskuratu zituen hirugarren hiruhilekoan. Kanpo eskaria izan zen hazkundearen bultzagile nagusia eta puntu bateko ekarpena egin zion jardueraren gehikuntzari. Kontsumo pribatua moteldu zen, zerga pizgarriak kendu zirelako eta soldatapekoen ordainketa apaldu zelako. Kontsumo publikoak, berriz, behera egin zuen lehen aldiz 1994. urtetik, gobernuak ezarri zituen hersturako neurri gogorren ondorioz. Beste aldetik, inbertsioa are gehiago murriztu zen eta, horren ondorioz, barne eskariak bere jaitsiera biziagotu zuen. Hala ere, BPG %0,2 hazi zen, tasa txikia Europako bazkide nagusiek lortu zituzten emaitza sendoezin alderatzen bada, baina garrantzitsua hazkunde positiboetara itzultzeak azken hamarkadetakoa krisi luzeena eta sakonena amaitutzat jotzen duelako.

Eskaintzaren ikuspegitik, energiak eta zerbitzuek bizitasuna irabazi zuten, industriak erritmoa galdu zuen bitartean, azken kontsumoa gutxiago hazi zelako eta inbertsioa gehiago murriztu zelako. Beste aldetik, lehen arloak eta, oso bereziki, eraikuntzak urte arteko beherakada areagotu zituzten.

Espainiako ekonomiaren hobekuntza horrek bere isla izan zuen lan merkatuan. Izan ere, espainiar ekonomiak enplegua sortu zuen aurreko hiruhilabetearen aldean eta urte arteko beherakada gutxitu zuen hirugarren hiruhilekoan, %-1,7an utzi arte, aurreko balioetatik baino gutxiago jaitsiz. Dena dela, gorakada hori ez zen nahiko izan langabezia tasa gutxitzeko, %20aren inguruan jarraitu baitzuen.

Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioa zertxobait igo zen aurtengo hirugarren hiruhilabetean zehar, urrian eta gero azaroan ere %2,3an kokatu arte. Erregaien eta elikagaien salneurrien gehikuntza dago igoera horren atzean. Hala eta guztiz ere, eta ia urtebete oso batean gehikuntzak etengabeak izan diren arren, oraingoz ez da presiorik hautematen inflazioan, elikagai freskoak eta energiako ekoizkinak barnean hartzen ez dituen azpiko inflazioa %1,1ean mantendu delako.

Azkenik, administrazio publikoek, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren datuen arabera, %47,3 gutxitu zuten defizit publikoa urrian 2009ko epealdi beraren aldean. Ekonomiaren egonkortasunak eta defizita gutxitzeko onartu ziren neurrien eraginak finantzazio beharra 31.263 milioi eurotan murriztea ahalbidetu zuten. Zenbateko hori barne produktu gordinaren %2,96aren baliokidea da.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010		
			III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	0,9	-2,3	-2,3	-1,8	-0,4	1,6	1,0
- Familien gastua	-0,6	-4,3	-4,2	-2,6	-0,3	2,2	1,4
- Administrazioaren gastua	5,8	3,2	2,7	0,2	-0,5	0,1	-0,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	-4,8	-16,0	-16,4	-14,0	-10,4	-6,8	-7,0
- Ekipamendurako ondasunak	-2,5	-24,8	-25,5	-16,9	-4,4	8,7	2,4
- Eraikuntza	-5,9	-11,9	-11,7	-11,9	-11,4	-11,4	-11,6
- Bestelako ekoizkinak	-4,1	-16,2	-18,7	-17,2	-15,4	-11,2	-3,3
- Izakinen aldakuntza (*)	0,1	0,0	0,0	-0,1	0,0	0,1	-0,1
Nazio eskaria (*)	-0,6	-6,4	-6,5	-5,3	-2,9	-0,3	-0,8
Esportazioak	-1,1	-11,6	-11,0	-2,1	9,1	11,6	8,7
Inportazioak	-5,3	-17,8	-17,2	-9,2	2,3	9,3	3,9
BPG (m.p.)	0,9	-3,7	-3,9	-3,0	-1,4	0,0	0,2
Nekazaritza eta arrantza	-2,1	1,0	1,6	1,5	-1,5	-2,0	-2,2
Energia	5,8	-6,4	-7,3	-6,3	0,2	0,8	4,6
Industria	-2,7	-13,6	-14,8	-11,0	-2,1	2,3	1,7
Eraikuntza	-1,6	-6,2	-7,1	-5,4	-6,5	-6,6	-6,8
Zerbitzuak	2,3	-1,0	-0,9	-0,9	-0,5	0,4	0,9
Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,1	-6,0	-6,5	-4,8	-0,8	1,7	0,8
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	4,1	-0,3	-1,1	0,1	1,1	1,6	2,0
- Enplegua (**)	-0,5	-6,6	-7,2	-6,0	-3,8	-2,5	-1,7

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Ekoizpena eta eskaria

Eustatek 2010eko hirugarren hiruhilekorako argitaratu dituen EAEko kontu ekonomikoen informazioak adierazten du barne produktu gordina (BPG) %0,6 hazi zela aurreko urteko epealdi beraren aldean, urte sasoiaren eta egutegiaren eraginak zuzenduta dituen seriean neurtuta. Hori horrela izanda, EAEko ekonomiak bi hiruhileko jarraian lortu ditu urte arteko aldakuntza tasa positiboak eta goranzko bilakaera egonkortu du. Hala eta guztiz ere, datuak aurreko hiruhilabetearekin alderatzen badira, BPGren aldakuntza tasa %0,0 izan zen, ekonomiaren susperraldia astiro eta zailtasunez beterik gauzatzen ari dela agerian utziz.

EAE-KO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009			2010	
			II	III	IV	I	II
Barneko azken kontsumoa	1,9	-2,1	-2,8	-1,5	-0,3	1,4	0,9
- Familien gastua kontsumoan	0,6	-3,7	-4,2	-2,5	-0,6	1,4	1,2
- Herri admin. gastua kontsumoan	7,0	3,7	2,6	2,4	0,5	1,4	-0,2
Kapital eraketa gordina	-2,2	-15,4	-17,1	-14,6	-9,8	-6,5	-2,9
Barne eskaria	0,7	-5,7	-6,7	-5,0	-2,6	-0,5	0,0
Kanpo saldoaren ekarpena	0,4	2,3	2,4	2,1	1,9	1,0	0,6
Esportazioak	0,0	-18,4	-20,0	-15,7	1,1	11,1	9,1
Inportazioak	-0,8	-20,1	-21,6	-17,7	-2,3	9,0	8,0
BPG (m.p.)	1,3	-3,8	-4,5	-3,1	-0,8	0,5	0,6
Lehen arloa	-6,1	3,6	-2,6	-13,0	-26,6	-4,2	18,3
Industria	-0,6	-12,7	-14,8	-9,4	-2,3	0,9	1,4
Eraikuntza	-5,8	-3,6	-2,1	-1,1	-5,4	-5,5	-6,1
Zerbitzuak	3,3	-0,2	-0,6	-0,8	0,5	0,9	0,7
Balio erantsi gordina	1,2	-4,0	-4,8	-3,3	-0,9	0,3	0,3
Ekoizkinen zerga garbiak	2,3	-2,0	-2,4	-0,9	-0,1	2,2	3,6

Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Eskaintzaren ikuspegitik, 2010eko uztailetik irailera bitarteko epealdian joera ezberdinak hauteman ziren ekoizpen arloen balio erantsi gordinaren bilakaeran. Zehazkiago adierazita, ekonomiaren susperraldia jarduera adar nagusietan, hots, industrian eta zerbitzuetan, gauzatu zen, eta lehen arloarekin batera ekarpen positiboa egin zioten barne produktu gordinaren hazkundeari. Aitzitik, eraikuntzak doitzeko prozesua luzatu zuen eta beheranzko joera erakutsi

zuen berriro. Beste aldetik, zergen bidezko diru bilketa oso nabarmen areagotu zen, susperraldiarengatik eta araudiaren aldaketengatik.

Eskariaren ikuspegitik, barne eskariaren osagai guztiek, salbuespena ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa delarik, bigarren hiruhilabetekoak baino tasa apalagoak jaso zituzten. Familien azken kontsumoak zertxobait moteldu zuen bere hazkunde tasa, zerga politikaren eta pizgarrien amaieraren ondorioz. Hiruhilabete horretan indarrean sartu zen BEZ zergaren igoera –tipo orokorra %16tik %18ra igo zen eta murriztua %7tik %8ra- eta, besteak beste, automobilak erosteko diru laguntzak amaitu ziren. Bi gertakari horiek familien kalkuluetan zeuden eta erosketa jakin batzuk aurreratu izana eragin zuten, bereziki aurtengo bigarren hiruhilekoan egin baitziren. Beste aldetik, administrazio publikoen gastuak behera egin zuen uztaila eta iraila bitartean, kontu publikoetako defizita kontrolatzeko onartu ziren hersturako egitasmoen ondorioz. Kapitaleko eraketa gordinak bere jaitsiera erritmoa leundu zuen, neurri handi batean, ekipamendurako ondasunen inbertsioari esker.

Ekoizpen jarduera


EAEko lehen arloaren balio erantsi gordina oso nabarmen areagotu zen 2010eko hirugarren hiruhilekoan eta Eustatek %18,3an estimatu du sektore horretako urte arteko hazkunde tasa. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako nekazaritzak eta arrantzak ez zuten horrelako hazkunde ezohikorik jasotzen 2004. urtetik. Hala ere, gogoratu behar da sektore txikia dela eta gorabehera handiak izaten dituela.

Industriak %1,4ra igo zuen urte arteko hazkundera hirugarren hiruhilekoan, Eustatek argitaratu duen informazio ofizialaren arabera. Goranzko portaera hori oso lotuta dago esportazioen susperraldiarekin, baina baita barne eskariaren bilakaerarekin ere, neurri txikiagoan bada ere. Arlo horretako maiztasun handiko adierazleek jardueraren susperraldia iradokitzen dute. Izan ere, industria giroaren indizeak bere atzerakada murriztu eta oraindik balio negatibotan badago ere, azken epealdietan suspertzeko joera garbia erakutsi du adierazle horrek. Orobat, ekoizteko ahalmenaren erabilera mailak igotzen jarraitu du eta urrian %73,5era iritsi zen, 2008ko urritik inoiz jaso duen mailarik gorena baita.


Eustatek egiten duen industria produkzioaren indizeak aurreko hiruhilabeteetan baino joera hedakorragoa erakutsi zuen hirugarren hiruhilekoan. Estatistika horren osagai guztiek hobera egin zuten, baina bereziki azpimarragarria da bitarteko ondasunen, energiaren eta kontsumo iragankorraren ondasunen portaera.

Ekonomia arloen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasak


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Analisia industria adarren arabera egiten bada, urte arteko hazkunde tasen gehikuntza orokorra izan dela ondorioztatzen da. Bereziki itxaropentsua da metalurgia eta artikulua metalikoen eta makineriaren egoera, EAEko industria egituraren pisu handia baitute eta normaltzeko bidean urrats garrantzitsuak eman baitituzte. Goranzko joera orokor horretatik aldendu diren adarrak industria ez-metalikoa eta mineral metalikoak zein ez-metalikoak dira, berriro aldakuntza tasa negatiboak jaso dituztelako.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010				
			III	IV	I	II	III	Urria	Azaroa
Industria									
Balio erantsi gordina	-0,6	-12,7	-14,8	-9,4	-2,3	0,9	1,4	---	---
Industria produkzioaren indizea (*)	-3,8	-20,8	-22,0	-14,3	0,1	4,2	4,2	3,3	---
Industria giroaren indizea	-11,1	-42,0	-41,9	-39,2	-29,8	-19,3	-13,2	-14,2	-15,8
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	80,7	66,9	65,6	66,0	65,2	68,8	71,8	73,5	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,6	-7,8	-9,2	-8,1	-6,8	-4,6	-3,2	-2,9	-2,5
Eraikuntza									
Balio erantsi gordina	-5,8	-3,6	-2,1	-1,1	-5,4	-5,5	-6,1	---	---
Eraikuntzaren indizea	1,8	-12,2	-14,3	-14,1	-14,2	-13,7	-24,4	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak	-35,0	-24,6	-38,3	-41,6	-31,2	-18,5	1,6	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-25,6	-19,4	-11,8	-17,4	23,5	33,7	25,9	23,0	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,3	-6,6	-6,8	-4,3	-8,1	-6,7	-7,2	-7,7	-7,8
Zerbitzuak									
Balio erantsi gordina	3,3	-0,2	-0,6	-0,8	0,5	0,9	0,7	---	---
Hegazkinen bidezko trafikoa	-4,7	-13,5	-8,2	-4,8	6,5	6,3	4,6	10,1	6,7
Hoteletan igarotako gaualdiak	-3,2	-2,1	3,4	3,1	10,9	12,3	13,9	15,0	---
Hoteletako okupazioa	44,4	41,3	54,3	37,7	31,5	44,6	58,5	48,6	---
Negoio zifren indizea	0,0	-13,1	-13,6	-6,0	0,8	7,5	1,3	-1,5	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,3	-0,6	-0,5	-0,7	0,2	1,0	1,1	1,2	1,1

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Eraikuntzak beheranzko norabideari segida eman zion 2010eko hirugarren hiruhilekoan ere eta bere balio erantsi gordinak %-6,1eko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen. Higiezinaren arloan metatu den gehiegizko eskaintzak sektorearen desorekak zuzentzera behartu du. Doikuntza hori etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuen kopuruak jaso duen jaitsieran hautematen da,

hasitako bizitegien kopurua murriztu baitu. Horrek merkatuari lagunduko dio saldu gabeko etxebizitza berrien stocka datozen urteetan gutxitzen. Beste aldetik, eraikuntzaren koiuntura indizearen egutegiaren eraginik gabeko seriearen arabera, 2010eko hirugarren hiruhilekoan sektoreak atzera egin zuen berriro eta hurrenez hurren $\%-23,4$ eta $\%-25,9$ gutxitu zen eraikinen eta obra zibilaren lana. Horixe da adierazleak inoiz jaso duen daturik okerrera.

Zerbitzuek moteltze arineko joera erakutsi zuten eta ekarpen positiboa egin zion EAEko balio erantsi gordinari 2010eko hirugarren hiruhilekoan. Jarduera multzo hau $\%0,7$ hazi zen urte arteko aldakuntza tasan, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Aldakuntza tasa positiboa merkaturatzen diren zerbitzuen bizitasunaren ondorioa da, $\%0,9$ ko gehikuntza tasa jaso baitzuen, hots, aurreko hiruhilabeteko emaitza baino hamarren bakar bat gutxiago. Beste aldetik, salmentara bideratzen ez diren zerbitzuek behera egin zuten eta $\%-0,3$ an kokatu zuten urte arteko aldakuntza. Jaitsiera hori administrazio publikoek aurrekontuetan ezarri dituzten murrizketa sakonen ondorioa da.


Zerbitzuetako adarrak eskura dauden koiuntura adierazleen bidez aztertzen badira, 2010eko hirugarren hiruhilekoan joera ezberdinak gauzatu zirela agerian geratzen da. Esate baterako, merkataritzaz uztailetik irailera bitartean ezagutu diren datuak ez dira oso onak izan. Txikizkako merkataritzaren indizeak eta azalera handietako merkataritza indizeak atzera egin zuten epealdi horretan. Turismoan, ordea, suspertzeko zantzu garbiak hauteman dira azken hilabeteetan. Bidaiarien aireko trafikoa, EAE bisitatu zuten turisten kopurua, hoteletan igarotako gaualdiak eta hotelen betetze maila bezalako estatistikek hazkunde tasa areagotu dute azken hilabeteetan. Oro har eta zerbitzuetako enpleguari dagokionez, hiruhilabeteetan behin estimatzen diren kontu ekonomikoetako enplegua eta Gizarte Segurantzaren izena emanda dauden afiliatuen kopurua hazi ziren 2010eko hirugarren hiruhilekoan, iazko epealdi beraren aldean.

Eskariaren osagaiak


Barne eskariaren osagai nagusia, hots, barneko azken kontsumoa, moteldu egin zen hirugarren hiruhilekoan, bera osatzen duten bi osagaiek markatu zuten joerarengatik. Hain zuzen ere, kontsumo pribatuak $\%1,2$ ko urte arteko hazkundea jaso zuen, aurreko hiruhilabeteko emaitza baino bi hamarren gutxiago bakarrik delarik. Erakunde publikoen kontsumoa, berriz, $\%-0,2$ ra jaitsi zen, estatistika hau argitaratzen denetik jaso duen lehen tasa negatiboa baita. Dena dela, eta gutxiago hazi bazen ere, barne eskariko osagaien artean azken kontsumoko gastuak erakutsi zuen sendotasun handiena 2010eko hirugarren hiruhilekoan.

Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontsumo publikoa




Kontsumo pribatua




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

Familien kontsumoak BEZaren igoerak eta ekonomia pizgarrien kentzeak eragin zuten erosketen aurrerapenaren ondorengo nozitu zuen uztailetik irailera bitartean. Horixe ikusten da Eustatek argitaratzen duen txikizkako merkataritzaren indizean, hirugarren hiruhilekoan oso nabarmen gutxitu baitzen. Are handiagoa izan zen automobilen salmentak jaso zuen beherakada, turismoak erosteko zuzeneko diru laguntzak amaitu izanak baldintzatuta. Beste aldetik, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kontsumitzaileen konfiantzak joera egonkorra erakutsi zuen, nahiko zuhurra ziurgabetasuneko testuingurua kontuan hartuta. Zalantzarik gabe, kontsumitzaileen kezka nagusietako bat lan merkatuaren egoera zen. Hala eta guztiz ere, familien portaera nabarmen urrundu zen 2008an eta 2009an izan zituen balio ezkorretatik, baina oraindik batez besteko historikoaren azpitik dauden emaitzak dira azken hiruhilabetean lortutakoak.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010				
			III	IV	I	II	III	Urria	Azaroa
Kontsumo pribatua									
Hiruhilekako kontuen estimazioa	0,6	-3,7	-4,2	-2,5	-0,6	1,4	1,2	---	---
BMI txikizkaria	-2,7	-3,8	-1,6	-1,8	4,2	-0,4	-3,1	---	---
Azalera handiko merkataritza indizea (*)	-3,9	-1,7	-0,7	1,8	3,4	1,1	-2,1	-3,2	---
Landunak txikizkarian	1,1	-3,3	-3,6	-3,3	0,0	1,0	-0,1	---	---
Automobilen matrikulazioa (*)	-20,1	2,6	15,2	35,3	33,1	26,1	-31,5	-40,3	-39,2
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	79,5	75,6	72,0	93,0	81,0	82,0	81,0	---	---
Kapital eraketa gordina									
Hiruhilekako kontuen estimazioa	-2,2	-15,4	-17,1	-14,6	-9,8	-6,5	-2,9	---	---
IPI ekipamendua EAE (*)	-2,5	-28,8	-40,4	-20,8	-4,6	1,9	23,7	0,9	---
IPI ekipamendua Estatua (*)	-9,4	-21,4	-18,5	-13,0	-1,7	-2,6	-5,2	-6,3	---
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	-1,1	-31,0	-24,4	-25,8	0,4	4,9	8,3	---	---
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-39,9	-36,6	-34,2	-16,8	5,8	5,1	-2,2	-7,8	-10,5

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordinak bere jaitsiera erritmoa moteldu zuen eta %-2,9ko urte arteko aldakuntza tasa jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabetekoa baino ia lau puntu txikiagoa baita, nahiz eta oraindik agerian uzten duen enpresen inbertsioak bizi duen narriadura sakona, bereziki etxegintzaren adarrean. Ekipamendurako ondasunetan eginiko

inbertsioari dagokionez, ondasun horien ekoizpena eta inportazioa areagotu ziren uztaileen eta irailaren bitarteko epealdian. Hala ere, zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak gutxitu ziren epealdi horretan. Elektrizitateko kontsumoari dagokionez, hazkunde tasa positiboak jaso zituen, baina moteltzeko joera nabaria da. Eraikuntzan eginiko inbertsioan, higiezinaren arloak doikuntzako prozesu batean murgilduta jarraitzen du. Zementuaren itxurazko kontsumoa oso nabarmen gutxitu zen 2010eko hirugarren hiruhilekoan, 2009ko lehen hilabeteetako maila bertsuetan kokatuta. Prezioek beheranzko presioa egiten dute oraindik, Etxebizitza Ministerioaren estatistikek agerian uzten dutenez. Baina merkatzeko joera hori ez da nahiko izan etxebizitza berrien stocka gutxitzeko, hirugarren hiruhilabetearen bizitegi berrien kopurua igo baitzen.


Kanpo saldoa

2010eko hirugarren hiruhilekoan, munduko merkataritzak hazkunde erritmo garrantzitsua izan zuen, baina aurreko hiruhilabetekoa baino zertxobait motelagoa. Ekonomia aurreratuek gehiago nabaritu zuten moteltze hori, nahiz eta beraiek lortu zituzten hazkunde erritmoak historiako batez bestean lortutakoaren inguruan dauden. Garapen bidean dauden herrialdeek ere erritmo motelago hori hauteman zuten, baina beren barne eskarien sendotasun handiagoak eta aurreko hilabeteetan lortu zituzten hazkunde tasa garrantzitsuek jaitsiera leuntzen lagundu zuten. Hain zuzen ere, eta Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) lehen estimazioen arabera, salgaien munduko merkataritzaren balioa %18 areagotu zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilabetearen baino zortzi puntu gutxiago.


Europar Batasuna nazioarteko salerosketen buruan kokatu zen, bere merkatu kuota guztizkoaren %35era hurbildu baitzen. Hala eta guztiz ere, bai salmenten bai erosketen hazkunde tasek erritmo galera garbia erakutsi zuten 2010eko lehen erdiko emaitzen aldean. Dena dela, Alemaniako, Erresuma Batuko, Herbehereetako eta Italiako salmenten gehikuntzak Europako esportazioak %7,4 haztea ahalbidetu zuten. Orobat, Europako inportazioak %9,4 areagotu ziren. Dibisen gerra delakoak eta euroaren sendotasunak mesedegarriak izan ziren Asiarentzat, Europako joera berari jarraitu baitzion eta azken eremu horretako salerosketa mailara oso bizkor hurbildu zen (esportazioen merkatu kuota %28,7ra iritsi zen eta inportazioena, berriz, %32,2ra). Hazkunde tasei dagokienez, herrialde horiek lortu zituzten erosketa eta salmenta erritmoak oraindik oso biziak dira eta kasu guztietan %10etik gorakoak. Esate baterako, Txinaren esportazioak %32,3 areagotu ziren hirugarren hiruhilekoan eta Indiaren salmentak %20 gehitu ziren.

Ondasunen esportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak


Txina




Alemania



AEB



Japonia



Iturria: Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila, Txinako Bankua eta Japoniako Finantza Ministerioa.

EAEko ekonomiak ere nabaritu zuen munduko merkataritzaren erritmo motelagoa eta zertxobait apaldu zuen atzerrian saldutakoaren hazkundera aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Hala ere, esportazioen guztizkoa %21,7 hazi zen eta 4.100 milioi euroko langa gaintu zuten. Inportazioak, berriz, %22,7 areagotu ziren. Salmenten balioa eraketena baino handiagoa denez, saldoan superabita lortu da berriro, 473 milioi eurotik gorakoa. Energiaz bestelako ondasunen atalean, hazkunderaren leuntzea berdin hauteman zen esportazioetan nola inportazioetan, eta saldoak 1.300 milioi euroko marka gaintu zuen. Edozein modutan, hazkunde tasek oso indartsuak izaten jarraitu zuten eta lortutako tasak azken hamar urtekoak baino askoz ere handiagoak dira.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK ATZERIAN

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2010-III
	2008	2009	2009		2010			
			III	IV	I	II	III	
ESPORTAZIOAK								
Guztira	6,3	-26,6	-30,2	-11,1	7,3	34,0	21,7	4.194.671
Energetikoak	22,6	-30,8	-34,2	25,8	-36,9	36,4	55,5	472.200
Ez energetikoak	4,9	-26,1	-29,8	-13,7	10,5	33,8	18,5	3.722.471
INPORTAZIOAK								
Guztira	6,4	-38,9	-43,4	-18,3	13,3	36,4	22,7	3.721.289
Energetikoak	22,9	-40,9	-47,1	-9,7	8,6	37,6	19,2	1.330.491
Ez energetikoak	-0,8	-37,8	-40,9	-21,7	15,7	35,8	24,8	2.390.798

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Ekonomiak hirugarren hiruhilabetean izan zuen bilakaera onaren ondorioz EAEko merkataritza bazkide nagusien eskaria areagotu zen eta, horren ondorioz, hiru lurralde historikoetako esportazioak hazi ziren. Lehenengo aldiz 2007ko erdialdetik, atal guztiek gehikuntza tasa positiboak lortu zituzten. Bizitasun handiena mineralek eta produktu kimikoek izan zuten, ondoren metal arrunten eta beren manufakturen salmenta datorrelarik, aipatu diren guztiek %40tik gorako tasak eskuratu zituztelako. Ekipamendurako ondasunak gutxiago hazi ziren aurreko hiruhilabetean ezohiko gehikuntza lortu eta gero, bi itsasontziren salmentak atal horretako tasa %37tik gora eramane zuelako. Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, hazkundera askoz ere apalagoa izan zen, baina oraindik garrantzitsua izan zen, zeren eta automobilen salmentak bere susperraldia finkatu zuelako eta makinek eta tresnek hazkunde positiboak berreskuratu zituztelako, zazpi hiruhilekoz jarraian beherantz egin ondoren.


Bigarren hiruhilekoan lortutako hazkunde tasa aparten ondoren, inportazioen hazkundera zertxobait leundu zen 2010eko hirugarren hiruhilekoan. Hala eta guztiz ere, kontsumoaren egonkortasunak eta inbertsioaren nolabaiteko hobekuntzak eragin garbia izan zuten erosketen bilakaera onean. Izan ere, salmenten joeran bezala, atal guztiek hazkunde positiboak izan zituzten, nahiz eta kasu gehienetan aurreko hiruhilabetekoak baino txikiagoak ziren. Metal arruntak eta beren manufaktura, eta papergintzak bakarrik eman zuten ezustea, %50etik gertuko hazkunde tasei esker, gainontzeko adarrek batez besteko historikotik hurbilagoko mailetara itzuli ziren bitartean.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak


Energiako ondasunen esportazioak




Energiako ondasunen inportazioak




Ekipamendurako ondasunen esportazioak




Ekipamendurako ondasunen inportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. esportazioak



Metal arrunten eta beren manuf. inportazioak



Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Geografia eremuka, Europar Batasuna berriro izan zen energiaz bestelako esportazioen helbide behinena, EAEtik atzerrira bidalitako salmenta guztien %64,5 biltzen baitu. Alemaniako, Erresuma Batuko eta Frantziako ekonomiek erakutsi zuten sendotasunak eremu osora zuzendutako salmentak %17,1 areagotu zituen. ELGEko gainontzeko herrialdeei dagokienez, AEBetan saldutakoak azken hamarkadetako hazkunderik gorena izan zuen. Japonian saldutakoa ere hazi zen, baina askoz erritmo apalagoan. Hala ere, gorakada bikainenak ELGE eremutik kanpo lortu ziren. Hain zuzen ere, Errusiak eta Brasilek egin dituzten ekipamendurako ondasunen eskaria gero eta handiagoak %100aren inguru bizkortu zituzten salmentak. Txinari dagokienez, material elektrikoaren bultzadari esker, hazkunde tasa %176ra iritsi zen. Halaber, garatzen ari diren herrialde horiek EAEko merkatuan duten pisua sendotzen jarraitu zuten eta, hirugarren hiruhilekoan, salmenta guztien %7,4 bildu zuten. Ehuneko hori txikia da Europako merkatu kuotarekin alderatzen bada, baina AEBek eta Japoniak dutena bikoizten du.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZA EZ-ENERGETIKOAREN HELBURUA ETA JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2010 III
	2008	2009	2009		2010			
			III	IV	I	II	III	
Esportazioak								
ELGE	3,3	-30,5	-31,2	-20,4	3,2	28,1	16,3	2.773.518
Eurogunea	4,0	-32,8	-33,2	-21,5	12,0	23,2	14,5	1.930.251
Europako kide berriak	7,9	-27,1	-17,3	-14,2	19,0	23,4	8,3	192.251
Europar Batasuna 27	3,3	-32,6	-32,5	-18,1	9,3	28,1	17,1	2.399.862
Errusia	50,4	-47,8	-61,8	-14,4	46,4	15,9	106,0	43.682
Txina	33,6	-33,8	-46,3	-27,9	1,1	39,1	176,0	134.124
Brasil	13,4	-25,3	-35,6	6,8	64,9	76,2	97,7	95.724
Inportazioak								
ELGE	-2,5	-34,5	-33,7	-16,5	18,9	30,6	14,0	1.720.109
Eurogunea	-1,7	-34,4	-32,7	-13,5	19,3	25,5	9,1	1.245.937
Europako kide berriak	9,2	-28,9	-26,5	-18,5	15,7	60,2	20,8	93.030
Europar Batasuna 27	-3,1	-35,2	-34,5	-13,6	24,3	32,7	16,0	1.543.743
Errusia	5,5	-63,7	-75,7	-35,0	19,2	174,0	57,1	62.173
Txina	-2,3	-36,2	-42,6	-37,5	-6,8	26,2	61,8	269.511
Brasil	-1,9	-60,7	-86,2	35,9	36,9	204,8	170,5	20.500

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2009koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko barne eskariaren nolabaiteko hobekuntzak oso eragin positiboa izan zuen energiaz bestelako inportazioetan, %24,8 hazi zirelako. Europar Batasuna izan zen EAEko enpresen hornitzaile nagusia, bereziki Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua. Bertatik ekarritako metal arrunten eta beren manufakturen kopuruaren ondorioz eremu horretatik ekarritakoa %16,0 hazi zen. ELGEren gainontzeko herrialdeetan, Japonian erositakoaren bilakaera azpimarratu behar da, %34,0 gehitu zirelako. Hazkunde garrantzitsu horren atzean eta AEBek izandako beherakadaren atzean, neurri handi batean, material elektrikoko inportazioak AEBetatik Japoniara joan izana dago. Azkenik, merkatu berriak EAEko industriaren susperraldiaz eta berton sortu zen lehengaien beharraz baliatu ziren. Horren ondorioz, Errusiak, Brasilek eta Txinak, hazkunde tasa garrantzitsuak lortu zituzten, burdina eta altzairu galdaketako ekoizkinean hornitzaileak diren aldetik.


Lan merkatua

2010eko hirugarren hiruhilekoan, EAEko lan merkatuak suspertzen jarraitu zuen eta dagoeneko nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuen enplegu mailan, barne eskariaren hobekuntzari esker. Izan ere, lan merkatuaren inkesta nagusien arabera, enpleguak urte arteko gehikuntza bat lortu zuen, langabeen kopurua bigarren hiruhilabetearen aldean gutxituz eta parte hartzaileak etsipenean erortzea saihestuz. Mugimendu orokor horren ondorioz, bi inkestek estimatutako langabezia tasa jaitsi zen aurreko datuaren aldean.


Lan merkatua aztertzen duten epe laburreko adierazleek susperraldia finkatzen ari zela erakutsi zuten. Berariaz lan merkatua aztertzeko diseinatu diren inkestek eskaini dituzten datuetan enplegu garbia sortu dela baieztatzen da. Hain zuzen ere, BJA inkestak %1,3ko urte arteko hazkunde tasa estimatu zuen eta BAI inkestak %1,8ra igo zuen tasa hori. Ez ziren horren baikorrak Eustaten kontu ekonomikoak eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren emaitzak, zeren eta bi estatistika hauek aurreko urteko hiruhilabete beraren aldean berriro enplegua galdu zela iradokitzen baitute, nahiz eta jaitsiera erritmoa leuntzen ari dela garbi adierazten duten. Zehazkiago, hiruhilabeteakako kontu ekonomikoetan estimatutako lanpostuan %0,2 gutxitu ziren aurreko urteko datuaren aldean, aurreko hiruhilabeteetako emaitzak hobetuz eta egonkortasunetik oso hurbil dagoelarik. Gizarte Segurantzako afiliazioak, berriz, beheranzko joera zertxobait leundu zuen azaroan %-0,5ean kokatu arte. Hala eta guztiz ere, azken estatistika horretan nolabaiteko erresistentzia hautematen da tasa positiboetara itzultzeko, azken sei hilabeteetan urte arteko tasa oso gutxi hobetu delako.

Enplegu estatistiken bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Enpleguaren bilakaera ekonomia jardueraren arabera aztertzen bada, lanpostuen igoera zerbitzuetan bakarrik gauzatu zen, industriak eta eraikuntzak aurreko hiruhilabeteetako emaitza negatiboak berriro zituzten bitartean, nahiz eta industriak suspertzeko joerari eutsi zion arren. Eraikuntzari dagokionez, beheranzko joera areagotu zen, etxebizitzaren adarrak dauzkan arazoei obra zibilarren eta bestelako eraikuntzaren okertzea gehitu baitzaizkie, administrazio publikoak bideratu dituen aurrekontu hersturako egitasmoen ondorioz. Zerbitzuen artean, pisu handiena duen adarrak, hots, merkataritzak izan duen joera azpimarratu behar da (azaroan %0,4 hazi zen enplegua adar horretan), kontsumo publikoaren

bultzadari esker. Afiliatuen kopurua igo zuten zerbitzueta beste adar batzuk ostalaritza (%2,8), osasun arloko jarduerak (%3,2) eta higiezin arloko jarduerak (%2,6) izan ziren. Aitzitik, garraioan (%-1,2), finantza jardueretan (%-1,8) eta informazioa eta komunikazioetan (%-1,0) afiliatuen kopurua gutxitu zen.

Hirugarren hiruhilekoan lortu ziren ekoizkortasun irabaziak garrantzitsuak izan ziren, baina aurreko bi hiruhilabeteetakoak baino zertxobait txikiagoak. Hain zuzen ere, aldagai hori %1,1 igotzetik %0,8ra pasa zen. Ohikoa denez, eraginkortasuneko irabazi handienak industriako adarretan (%4,1) lortu ziren, ekoizpena hazten ari den arren oraindik langileen kopurua egokitzen ari baita. Aitzitik, bai eraikuntzak bai zerbitzuek ekoizkortasuna galdu zuten. Hala eta guztiz ere, sektore bateko eta besteko egoera oso bestelakoa izan zen, zeren eta eraikuntzan ekoizkortasuneko galera horrekin batera enplegua ere behera egin baitzuen, oso modu garrantzitsu batean gainera. Zerbitzuetan, ordea, enplegua sortu zen, eta gehikuntza tasa balio erantsiarena baino handiagoa izan zen.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010		
			III	IV	I	II	III
Enplegua guztira	0,3	-3,4	-3,7	-3,0	-1,8	-0,6	-0,2
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	1,0	-0,4	-0,8	-0,1	1,0	1,1	0,8
Enplegua lehen arloan	0,0	-9,6	-9,9	-7,2	3,0	-1,0	-1,2
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	-6,1	14,6	8,1	-6,3	-28,7	-3,2	19,7
Enplegua industrian	-2,0	-7,1	-8,1	-7,1	-5,9	-3,4	-2,6
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	1,4	-6,0	-7,3	-2,5	3,8	4,5	4,1
Enplegua eraikuntzan	-5,0	-6,7	-8,1	-4,3	-5,5	-4,2	-5,7
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	-0,8	3,3	6,5	3,3	0,1	-1,4	-0,4
Enplegua zerbitzuetan	2,1	-1,3	-1,2	-1,0	0,0	0,9	1,5
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	1,2	1,1	0,6	0,2	0,5	0,0	-0,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Lehenago ere aipatu denez, BJA inkestaren estimazioak iradokitzen du landunen kopurua %1,3 areagotu zela hirugarren hiruhilekoan, iazko hiruhilabete berarekin alderatuta. Inkesta horren arabera, enpleguaren sorrera arlo publikoaren jardueraren ondorioa izan zen, enplegu publikoa %6,1 igo baitzen, gastu publikoa gutxitzeko hersturako neurriak martxan jarri ziren arren. Enpleguaren bultzada gazteen artean (%4,1) eta 44 urtetik gorako langileen artean (%2,9) nabaritu zen bereziki. Beste aldetik, inkestaren datuen arabera sortzen ari diren

lanpostuak behin-behinekoak dira. Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilabeteetan gertatu zena ez bezala, emakume landunen kopurua (%1,9) igotzeaz gain gizon landunen kopurua ere areagotu zen (%0,8). Horren ondorioz, bi kolektibo horietako enplegu tasak suspertzeko joerari eutsi zion.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

Ehunekoak

	2008	2009	2009		2010		
			III	IV	I	II	III
Partaidetza tasa guztira	55,3	55,6	55,4	55,8	55,5	56,1	56,3
- Gizonak	64,5	64,0	64,0	64,2	63,5	64,1	64,5
- Emakumeak	46,7	47,6	47,3	47,9	47,9	48,5	48,5
- 16 urtetik 24ra	34,6	32,0	31,4	32,5	31,3	33,0	32,1
- 25 urtetik 44ra	86,5	87,6	87,0	87,8	87,2	87,6	87,8
- 45 urte eta gehiago	37,6	38,1	38,3	38,5	38,7	39,1	39,6
Enplegu tasa guztira	53,3	51,0	50,8	51,0	50,6	51,0	51,4
- Gizonak	62,3	58,6	58,1	58,6	57,7	58,0	58,4
- Emakumeak	44,7	43,9	43,9	43,9	43,8	44,3	44,7
- 16 urtetik 24ra	31,2	24,7	23,5	24,3	23,6	24,8	24,8
- 25 urtetik 44ra	82,9	79,8	79,6	79,4	78,9	79,5	80,0
- 45 urte eta gehiago	36,8	36,3	36,2	36,6	36,5	36,6	36,9
Langabezia tasa guztira	3,8	8,1	8,3	8,7	8,9	9,1	8,8
- Gizonak	3,4	8,4	9,1	8,8	9,1	9,5	9,5
- Emakumeak	4,2	7,8	7,2	8,5	8,6	8,6	7,9
- 16 urtetik 24ra	9,9	23,0	25,3	25,4	24,8	25,0	22,5
- 25 urtetik 44ra	4,1	8,9	8,5	9,6	9,6	9,2	8,9
- 45 urte eta gehiago	2,3	4,8	5,5	4,9	5,6	6,6	6,8

Iturria: BJA (Eustat).

Estatistika horrek adierazten du biztanleriak ez duela etsipenik nabaritzen eta, aitzitik, lan merkatuan parte hartzeko tasa berriro igo zela %56,3an kokatu arte, serie osoan inoiz jaso den mailarik gorena delarik. Azpimarratzekoa da hirugarren hiruhilabeteetan partaidetza tasak izan zuen igoera gizonen artean gauzatu izana, aurreko hiruhilabeteetan galdutako pisua berreskuratu baitzuen. Emakumeen partaidetza tasa, berriz, ez zen aldatu aurreko emaitzaren aldean. Adin handieneko bi taldeek bereganatu zuten parte hartze handiago hori, biztanleria gazteenak bere partaidetza gutxitu zuen bitartean.

Aipatu diren joera horien ondorioz, langabezia tasa orokorra bigarren hiruhilabeteko %9,1etik hirugarreneko %8,8ra murriztu zen, 2008ko erdialdean hasi zen goranzko joerari amaiera emanez. Gazteen langabeziaren beherakada nabarmendu behar da, oraingo tasa %22,5ean kokatzen baita, aurreko datua baino bi puntu eta erdi beherago. Hala ere, lanik gabeko lagunen kopuruak gora egin zuen urte arteko tasan (%8,2), baina aurreko hiruhilekoan (%17,7) baino askoz ere gutxiago. BAI inkestak eskaini duen joera onuragarriagoa da, zeren eta bai langabeen kopurua bai langabezia tasa gutxitu baitziren.

LANGABEZIAREN BILAKAERA


Mila lagun eta tasak

	2008	2009	2009		2010		
			III	IV	I	II	III
Langabeak BJA inkestaren arabera	38,6	84,2	85,5	90,4	91,8	95,0	92,5
Langabeak BAI inkestaren arabera	68,6	115,6	120,7	123,1	113,7	109,8	104,3
Langabeak INEMen erregistroetan	84,6	120,5	120,1	127,1	137,0	130,1	128,6
Langabezia tasa BJA inkestaren arabera	3,8	8,1	8,3	8,7	8,9	9,1	8,8
Langabezia tasa BAI inkestaren arabera	6,4	11,0	11,6	11,8	10,9	10,4	10,0


Iturria: Eustat, INE eta INEM.

Langabezia tasaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

Enplegua erregulatzeko dossierrei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak 131 dossier baimendu zituen 2010eko urrian, aurreko urteko urrian baino %29 gutxiago. Guztira, 1.630 dossier baimendu ditu urtea hasi zenetik, iazko epe berean baino %21 gutxiago delarik. Hori horrela izanda, aurtan enplegua arautzeko dossierren baimen guztiak, salbuespen bakarrak urtarrilekoak eta otsailekoak izan zirelarik, iazko datuen azpitik kokatu dira. Azpimarratzekoa da apiriletik aurrera gehiago izan zirela amaitu ziren dosierrak baimendutako berriak baino, aldagai horretan beheranzko joera garbia gauzatzen ari zela agerian utziz. Dosierrak ekonomia jardueraren arabera sailkatzen badira, azken hilabeteetako joerari eutsi ziotela hautematen da: dossier gehienak industrian aurkeztu dira, bereziki metalurgia eta makineriaren ekoizpenaren adarretan, bi horiek kaltetuenak izan direlako; ondoren, zerbitzu arloa kokatu zen, merkataritzakoak eta lanbide jarduerakoak nabarmen direlarik, eta gero eraikuntza arlokoak. Azkenik, lehen arloak EAEko barne produktu gordinen oso pisu txikia duen arren, adierazi behar da arlo horretakoak izan zirela ezinbesteko kasu ia guztiak, Kantauri itsasoan antxoak harrapatzeko geldialdiaren ondorioz.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2008	2009	2009				2010	
			III	IV	I	II	III	Urria
Dossierren kopurua	496	2.565	492	691	683	452	364	131
Eragindako langileak	12.794	68.722	10.020	17.658	12.073	7.176	7.799	2.356
<i>Dossier mota</i>								
- Lanaldia murriztekoa	108	1.170	124	144	149	88	200	279
- Behin-behineko etetea	11.216	65.574	9.428	17.045	11.434	6.844	7.228	1.701
- Kontratua amaitzekoa	1.470	1.978	468	469	490	244	371	376

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.


Azkenik, adierazi behar da BJA inkestak estimatu zuen enpleguaren gehikuntza aldi baterako kontratua duten soldatapekoak direla. Hain zuzen ere, aldi baterako kontratua duten soldatapekoen kopurua %11,7 gehitu zen bitartean, kontratu mugagabeko soldatapekoen multzoak %-0,5 gutxitu zuen bere kopurua. Horren ondorioz, aldibaterakotasun tasa %20,7ra itzuli zen. Maila hori ez zen jaso 2008. urtetik. Halaber, norberaren kontura lan egiten duten pertsonen kopuruak beherakada garrantzitsua (%-6,1) jaso zuen 2010eko hirugarren hiruhilekoan.

Prezioak, kostuak eta soldatak


Inflazioak goranzko norabideari jarraipena eman zion hirugarren hiruhilekoan ere (%1,9), petrolio gordinaren garestitzea eta BEZ zergaren uztaleko igoera kontsumoko prezioetara igaro zirelako. Petrolioaren garestitzea erabakigarria izan zen inflazioaren goranzko ibilbidean, ekainetik bere salneurria etengabe igo baitzen. Hain zuzen ere, hilabete horretan 74 dolarretan saldu zen upela eta abenduaren lehen hamabostaldian 90 dolarretara iritsi zen. BEZ zergak, berriz, espero zena baino eragin txikiagoa izan zuen kontsumoko prezioetan, enpresariak, salmentak galtzeko beldurrez, zergaren igoeraren zati bat margenetara igaro dutelako. Kontsumoko prezioen bizkortzea ez zen gelditu ondorengo hilabeteetan eta azaroan, argitaratu diren azken datuak hilabete horretakoak baitira, urte arteko aldakuntza tasa %2,3an kokatu zen, azken bi urteko baliorik altuena baita.

KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta INE.

Energiak jaso zuen berriro gorakadarik handiena (%11,0) eta KPI orokorraren hazkundeari ekarpen handiena egin zion atala izan zen, azaroan erregaiei salneurria %12,3 hazi baitzen aurreko urteko hilabete beraren aldean. Gainontzeko taldeek ere urte arteko aldakuntza tasak bizkortu zituzten. Izan ere, energiaz bestelako industria ondasunak %1,1 garestitu ziren. Atal horretan nabarmentzen da ibilgailuen salneurriaren gehikuntza, berauek erosteko egitasmoa amaitu zelako eta BEZ zergaren igoera indarrean sartu zelako. Zerbitzuek ere areagotu zituzten beren aldakuntza tasak, aurreko hilabeteetako moteltzearen ondoren, zergaren

igoerarengatik. Azkenik, landu gabeko elikagaiak oso nabarmen garestitu ziren, nahiz eta BEZaren gehikuntzak beraietan eragin txikiagoa izan zuen, zeren eta elikagai freskoak zergapetzen dituen tipo oso murriztua (%4) ez baitzen aldatu.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2008	2009	2010			Ekarpena
			II	III	Azaroa	
Inflazioa guztira (%100)	4,1	0,3	1,5	1,9	2,3	2,3
Azpiko inflazioa (%83,9)	3,2	1,1	0,3	1,1	1,4	1,2
KPI Landutako elikagaiak (%13,3)	6,6	1,2	0,7	0,8	1,2	0,2
KPI Industriako ondasunak (%28,8)	0,6	-0,9	-0,8	0,2	1,1	0,3
KPI Zerbitzuak (%41,7)	3,9	2,5	1,0	1,7	1,6	0,7
Hondarreko inflazioa (%16,1)	8,5	-3,6	7,5	5,9	6,9	1,1
KPI Landugabeko elikagaiak (%6,9)	5,0	0,2	0,0	0,8	1,5	0,1
KPI Energia (%9,2)	11,6	-7,3	13,2	9,8	11,0	1,0

Iturria: INE.

BEZaren igoeraren ondorioz prezioek nozitu zuten gorakada inflazioaren gune egonkorrenera ere, hots, azpiko inflaziora, iritsi zen, azaroan %1,4ra igo baitzen, azken hilabeteetako goranzko norabidea luzatuz, eta behin apirilean inoizko baliorik apalenean (%0,0) egon ondoren. Hain zuzen ere, dagoeneko zazpi hilabetez jarraian igo da adierazle horren urte arteko tasa, deflazioaren arriskua uxatuz. Hala eta guztiz ere, arau aldaketa horren eraginak datorren urteko bigarren erdian desagertuko dira eta orduan azpiko inflazioa maila apalagoetara itzuliko dela espero da.

Eurogunearikiko inflazio tarte zertxobait zabaldu zen eta dagoeneko lau hamarrenetara iritsi da. Horrelako tarterik ez da jaso 2008. urte amaieratik. Petrolioarekiko mendekotasun handiagoak eta ekoizkin hori gutxiago zergapetzeak azaltzen dute zergatik petrolioaren garestitzeak eragin handiagoa izan duen EAEn Europako batez bestean baino. Izan ere, goranzko joera biziena erakutsi zuten ekoizkin taldeak garraioa (%6,4), lehenago aipatua izan den erregaien garestitzearen ondorioz, eta etxebizitza (%4,9), elektrizitatearen garestitzearengatik, izan ziren. Hala ere, edari alkoholodunak eta tabakoa biltzen dituen taldea izan zen berriro tasa altuena (%8,3) jaso zuena, nahiz eta hazkunde tasa horiek murriztu ziren, tabakoaren garestitzea 2009koa baino txikiagoa izan zelako.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2008	2009	2010			
			I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	4,1	0,3	1,0	1,5	1,9	2,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	6,3	-0,1	-2,0	-1,0	-0,2	0,4
Edari alkoholodunak eta tabakoa	4,0	8,4	11,5	12,1	8,7	8,3
Jantziak eta oinetakoak	0,7	-1,4	-0,7	-0,3	0,0	0,5
Etxebizitza	6,4	1,9	0,6	2,8	3,9	4,9
Etxe hornidura	3,0	1,8	0,6	0,7	0,8	1,8
Medikuntza	-0,1	-0,2	-0,4	-0,1	0,3	-0,4
Garraioa	5,7	-5,3	6,3	6,6	5,7	6,4
Komunikazioak	0,0	-0,6	-0,5	-1,2	-0,5	-0,7
Aisia eta kultura	0,3	0,3	-1,5	-1,9	-0,3	-0,5
Irakaskuntza	4,7	4,2	2,1	2,0	2,1	2,3
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	4,6	2,4	1,3	1,4	1,8	2,2
Besteak	3,4	2,5	1,4	1,8	2,4	2,6

Iturria: INE.

Orobat, azpimarratu behar da elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak izeneko taldeak izan zuen zeinu aldaketa, balio positiboetara itzuli baitzen, fruta freskoaren eta pataten igoerarengatik. Aitzitik, komunikazioek (%-0,7) eta aisia eta kulturak (%-0,2) tasa negatibotan jarraitu zuten, medikuntza arloarekin batera (%-0,4). Guztira, ondasun eta zerbitzuko sei taldek gaitzen dute une hauetan prezioen egonkortasuna adierazteko Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2ko erreferentzia.

Industria prezioen indizeak (IPRI), berriz, goranzko norabideari jarraitu zion, baina %4,4ra moteldu zuen urrian, argitaratu den azken hilabetea baita, bere urte arteko aldakuntza tasa. Hazkunde erritmoaren apaltze hori kontsumo iraunkorreko ondasunen prezioen beherakadak eta, bereziki, energiako salneurrien urte arteko hazkunde tasa apalagoak eragin zuten. Azken atal horretan, petrolioa fintzeko prezioen urte arteko tasa %15,3ra jaitsi zen azken hilabetearen, martxoan hazkunde erritmoa %40aren inguruan kokatuta zegoen bitartean. Aitzitik, gainontzeko ondasunek, salbuespen bakarra bitarteko ondasunak zirelarik, goranzko joerari eutsi zioten, neurri batean BEZ zergaren igoerak kaltetuta.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010			
			I	II	III	Urria
Indize orokorra	6,6	-6,2	0,5	4,1	4,6	4,4
Kontsumoko ondasunak	4,4	0,0	-1,1	-0,3	0,4	0,6
- Kontsumo iraunkorrak	3,1	0,1	-1,4	-0,9	-0,4	-0,6
- Kontsumo iragankorrak	5,0	-0,1	-1,1	0,0	0,7	1,1
Ekipamendurako ondasunak	3,0	1,4	0,3	0,2	0,8	1,1
Bitarteko ondasunak	4,2	-7,5	-2,6	3,7	5,6	5,3
Energia	20,0	-16,6	10,8	14,4	10,8	9,7

Iturria: Eustat.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren susperraldiak langile bakoitzeko lan kostuak areagotu ditu (%2,2), bestelako kostuak delakoaren igoerarengatik (%1,4). Gorakada hori bereziki industrian (%3,9) gauzatu zen eta bai eraikuntzak bai zerbitzuek portaera apalagoa erakutsi zuten. Hala eta guztiz ere, lan egindako ordu bakoitzeko kostuak zertxobait gutxitu ziren epealdi berean.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2009		2010		
			III	IV	I	II	III
Kostu guztiak	4,7	2,8	0,5	2,5	1,7	1,5	2,2
- Soldata kostuak	5,7	2,8	0,6	2,2	2,1	2,7	2,4
- Bestelako kostuak	1,6	2,8	0,1	3,6	0,6	-2,0	1,4
Kostu osoa industrian	----	0,8	-0,9	2,1	0,8	3,7	3,9
Kostu osoa eraikuntzan	----	0,0	-1,0	-3,1	1,2	-1,5	0,9
Kostu osoa zerbitzuetan	----	4,5	1,9	4,1	2,4	1,3	1,6

Iturria: INE.

Azkenik, urria arte sinatutako lan hitzarmenek aurreko urteetakoak baino soldata igoera txikiagoak adostu zituzten, eta epealdi beraren inflazioarena baino nabarmen apalagoak, 2009ko abenduan jaso zen inflazio tasa txikiari esker (%1,0), salbagoardiako klausulen

aktibatzea galaraziz. Are gehiago, soldata gehikuntza horiek txikiagoak izan daitezke urtean zehar, soldatapeko publikoei egingo dizkieten soldata murrizketak arlo pribatuaren gehikuntzara igarotzen badira edo egoera zailetan dauden enpresak azken lan erreformak eskaintzen duen lan hitzarmenaren soldatak ez ordaintzeko klausulaz baliatzen badira.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2006	2007	2008	2009	2010(*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,9	4,2	5,0	2,7	1,7
- Urtean zehar sinatutakoak	5,0	4,1	4,8	2,8	1,4
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	5,0	4,2	5,2	2,8	1,7
- Enpresako hitzarmenak	4,1	4,2	4,1	2,6	1,6

(*) 2010eko urria arte jasotako lan hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

2010eko lehen bederatzi hilabeteetan, finantzaz bestelako eragiketen saldoak oso bilakaera ona erakutsi zuen. Alde batetik, diru sarrera publikoak hasieran aurreikusita zegoena baino gehiago hazi dira, beste arrazoi batzuen artean, ekonomiaren egoera hobearen ondorioz. Hain zuzen ere, diru sarrera arruntak %5,2 areagotu ziren aurreko urteko epealdi beraren aldean, kapitaleko diru sarrerak, arruntak baino askoz ere txikiagoak diren arren, %120,3 igo ziren bitartean. Beste aldetik, sarreren susperraldi garrantzitsu horri aurrekontua egokitzeko neurriak gehitu behar zaizkio, gastuak gutxitu baitzituzten. Jaitsiera hori bereziki kapitaleko eragiketetan (%-11,2) hauteman zen, baina eragiketa arruntak ere zertxobait (%-1,4) murriztu ziren epealdi horretan.

Gastuen kapituluetan, beherakada garrantzitsuak hauteman ziren inbertsioetan (%-20,6) eta transferentzia arruntetan (%-6,3), hainbat egitasmo berritu ez zirelako. Horrek eragin negatibo zuzena izango du ekonomia jardueran datozen hilabeteetan. Inbertsioaren beherakada nabarmenez gain, gastu arrunten ikuspegitik langileen gastuen izoztea (%0,4 baino ez ziren hazi) ere azpimarratu behar da, administrazioaren langileen urteko soldatan ezarri zaion jaitsierarengatik.

Aitzitik, eta 2009. urtean baino gutxiago hazi baziren ere, finantza gastuek hazkunde tasa nabarmenak (%35,3) erakusten jarraitu zuten, zor publikoaren igoerarengatik. Horrek etorkizunean amortizazio handiagoa eta intereseke ordainketa gehiago egongo direla iradokitzen du.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK. Eusko Jaurlaritza eta foru aldundiak (2010eko urtariletik irailera)

Mila eurotan

	2009	2010	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	8.377.334	8.816.899	5,2
2. GASTU ARRUNTAK	8.660.664	8.537.273	-1,4
Langileen gastuak	1.656.149	1.663.600	0,4
Funtzionamenduko gastuak	2.440.872	2.581.373	5,8
Finantza gastuak	35.442	47.961	35,3
Transferentzia arruntak	4.528.201	4.244.339	-6,3
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	-283.330	279.626	198,7
4. KAPITALEKO SARRERAK	35.627	78.491	120,3
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.018.761	904.743	-11,2
Inbertsio errealak	459.103	364.693	-20,6
Kapitaleko transferentziak	559.658	540.050	-3,5
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-983.134	-826.252	16,0
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA (3+6)	-1.266.464	-546.626	56,8

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Itundutako zergen bitartez bildutako diru kopuruari dagokionez, urria arte metatutako datuek %12,6ko hazkundera erakusten dute 2009ko epealdi beraren aldean, iraila arte jasotako tasa baino ia lau puntu handiagoa delarik. Gorakada horren atzean, batez ere, zeharkako zergen igoera dago eta, bereziki, BEZ zergarena, epealdi horretan %39,6 areagotu baitzuen bere diru bilketa.

Zuzeneko zergen diru bilketak aldakuntza tasa negatiboa jaso zuen berririo (%-1,4), sozietateen zergaren bilketa txikiagoak (%-13,0) baldintzatuta. Hala eta guztiz ere, zerga horrek nabarmen gutxitu zuen metatutako jaitsiera aurreko hilabeteke emaitzarekin alderatuta (%-18,4), atzerapenengatik eta ikuskatze aktengatik bildutako diru sarrerak aurreko urteko hilabete berekoak baino handiagoak izan zirelako.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2010eko urtariletik urrira)

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2009	2010	Aurrekon. %	10/09 aldak. %
PFEZ	2.831.879	2.963.154	69,4	4,6
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.297.781	3.403.644	77,6	3,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	221.321	189.278	64,9	-14,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	61.767	63.380	74,0	2,6
- Ondare irabazien atxikipenak	14.371	15.226	58,4	5,9
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	124.010	125.978	77,3	1,6
- Kuota diferentzial garbia	-887.371	-834.352	122,2	6,0
Sozietateen gaineko zerga	1.134.742	987.242	92,3	-13,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	221.321	189.278	64,9	-14,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	61.767	63.380	74,0	2,6
- Ondare irabazien atxikipenak	14.371	15.226	58,4	5,9
- Kuota diferentzial garbia	837.282	719.358	108,0	-14,1
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	88.163	100.610	95,2	14,1
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	61.708	54.361	67,7	-11,9
Ondarearen gaineko zerga	49.201	2.944	6,0	-94,0
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	4.165.694	4.108.312	73,7	-1,4
BEZaren bertoko kudeaketa	1.882.144	2.627.696	87,6	39,6
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	123.762	120.053	72,1	-3,0
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	79.801	69.135	69,8	-13,4
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	29.242	29.024	77,5	-0,7
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.092.107	1.132.901	84,5	3,7
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	39.459	37.409	72,1	-5,2
Aseguru sarien gaineko zerga	56.581	59.299	78,4	4,8
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	3.396.266	4.166.388	83,2	22,7
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	66.517	84.022	92,9	26,3
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	7.628.478	8.358.721	78,3	9,6
BEZaren doikuntza	513.037	792.023	95,3	54,4
Zerga berezien doikuntza	-93.171	-90.871	71,1	2,5
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	8.048.344	9.059.873	79,6	12,6

Iturria: Foru Aldundiak.

400 euroko kenketa kasu batzuetan desagertu izanak, enplegu mailaren egonkortzeak eta enplegua arautzeko dosierren beheranzko joerak PFEZ zergaren diru bilketa areagotu zuten, sozietateen zergaren beherakada neurri handi batean konpentsatuz. Zergaren kapituluaren

artean, administrazioetako langileen soldaten jaitsierak laneko etekinen atxikipenean izan zuen eragin negatiboa nabarmendu behar da, nahiz eta atxikipen horiek berriro igo ziren (%3,2). Kapital higiezinaren etekinen atxikipenen diru bilketak (%2,6) ere balio positiboak jaso zituen, atxikipen tipoa %19ra igo zelako eta alokairuen portaera hobetu zelako, etxebizitzaren salmenten jaitsierarengatik. Beste aldetik, kuota diferentzial garbiak ere diru bilketa hobetu zuen, eskatutako itzulketen bilakaeraren ondorioz. Aitzitik, kapital higigarriaren etekinen atxikipenek jaitsierari jarraipena eman zioten (%-14,5), dibidenduen eta inbertsio funtsen gaineko atxikipenek bat-bateko okertzea izan zutelako.

Zeharkako zergak izan ziren diru bilketaren bilakaera onaren erantzule behinenak, bertan kudeatutako BEZaren hazkundeari esker (%39,6). Hobekuntza horren atzean, araudiaren aldaketa dago, diru sarreren egutegian eta atzerapenetan eragina izan baitzuen, baina baita iruzurraren aurkako ekintzengatik ere. BEZaren bilakaera ona azaltzen duten beste faktore batzuk tipoen igoera eta barne eskariaren susperraldia dira.

Azkenik, zerga bereziak ere bilakaera ona erakutsi zuten eta %3,7 areagotu zuten beren diru bilketa. Zehazkiago adierazita, pisu gehien duten zergek, hots, hidrokarburoen eta tabakoaren lanen zergek gora egin zuten, zerga horien tipoak igo zirelako. Elektrizitatearen zergak izan zuen gehikuntza tasarik altuena (%40,2), batez besteko tarifa igo zelako eta kontsumoa areagotu zelako.

Finantza arloa

Europako Banku Zentralaren (EBZ) eta Greziako zor subiranoaren krisiak kaltetutako herrialdeen gobernuek eman zuten erantzun irmo eta azkarrari esker, aurtengo hirugarren hiruhilabetean burtsa eta zor publikoko merkatuetan bizi ziren tentsioak orokorrean baretu ziren.

Hala eta guztiz ere, nolabaiteko egonkortasun hori bertan behera geratu zen azken hilabeteetan, Irlandako banku sistemaren finantza kaudimenaz zalantzak agertu zirenean. Izan ere, bertako banku sistemari BPGren %421 tamainako zorra estimatu zaio. Halaber, Irlandako bankuen arazoei zor publikoko merkatuak zipriztindu zituzten eta beste ekonomia batzuk ere (Portugal, Espainia eta Italia) kutsatu zituzten, desoreka makroekonomikoen ondorioz, zaurgarriagoak zirelako. Hain zuzen ere, egoeraren ezegonkortasuna tamaina handikoa zen eta EBZk eta NDFk Irlanda behartu zuten erreskate egitasmo bat onar zezan. Hainbat aldiz ezetz esan ondoren, eta ekonomiaren egoera kanpoko laguntzarik gabe egonkortzeko ezintasuna

ikusita, Irlandak etsi zuen eta erreskatea onartu zuen. Diru laguntzen paketea 85.000 milioi eurokoa izan zen eta defizita sortu duen banku arloaren beharrei aurre egiteko funts bat sortzera bideratuko da. Izan ere, defizit publikoak 2010. urtean BPGren %30 gaindituko duela aurreikusi da.

Finantza arloan agertu diren arazoei aurre egiteko, banku zentral nagusiek azken urteko joera biziki moldakorrari eustea erabaki zuten. Hain zuzen ere, EBZk maila apaletan utzi zituen interes tasak eta, hasiera batean kredituari laguntzeko ezohiko neurriak urratsez urrats kendu nahi bazituen ere, Euroguneko hainbat herrialdetako defizit publikoaz agertu ziren zalantzek eragin zuten finantza ezegonkortasunak bere horretan uztera behartu zuen (Irlandako ustezko ordainketa ezak EBZ behartu zuen 711 milioi euroko zorra erostera azaroaren hasieran, hiru astez inolako inbertsiorik egin gabe egon ondoren).

EBZren estrategia kontserbadoreago honetatik oso urrun daude Erreserba Federalak onartutako erabakiak, ezohiko neurriak ez kentzeaz gain, erreferentziako interes tasa mugitu gabe utzi baitzuen %0aren eta %0,25aren artean. Orobat, moneta pizgarrien beste egitasmo bat onartu du 600.000 milioi dolarreko zor publikoa erosteko. Dirua merkatuetara eramateko erabaki horren helburua eskaria handitzea da eta, horrekin batera, bi eta hamar urte bitarteko zorraren prezioa igotzea, aktibo horien errentagarritasuna gutxituz, prezioaren kontrako zentzuan mugitzen baita. Zor publikoaren errentagarritasuna epe luzerako maileguetarako erreferentzia gisa hartzen denez, hau gutxitzen bada finantzazioa ere murriztuko da, eta horrek familien kontsumoari eta enpresen zorpetzeari lagunduko die. Oraingoz, neurriak izan duen eragin bakarra dolarraren kotizazioan hauteman da, dibisa garrantzitsuenen aldean oso balio galera nabarmena izan zuelako.


Ingalaterrako Bankuak %0,5ean utzi zuen esku-hartzeko interes tasa, eta 200.000 milioi liberatan aktiboak erosteko programa. Japoniako Bankuak ere ekonomia suspertzeko eta prezioen bilakaera egonkortzeko neurriak hartu zituen. Hain zuzen ere, 14,8 bilioi yen saldu zituen diru hori dolarraren aldean lortzen ari zen balio irabazia galgatzeko eta, egun batzuk beranduago, interes tasak jaitsi zituen %0 eta %0,1 arteko urkila batean utzita prezioak egonkortzeko. Orobat, 50.000 milioi euroko egitasmo bat onartu zuen ekonomia susperraldiari laguntzeko.

Badirudi finantza egonkortasuna lehenesteko asmoak Europa eta AEBak eramango dituela esku-hartzeko interes tasen igoera geroratzera. Aitzitik, Asiako herrialde askotan dagoeneko hasi dira interes tasa ofizialak igotzen. Hain zuzen ere, Txinak, inflazioaren gorakada gelditzeko asmoz, 2007. urtetik lehen aldiz interes tasak %0,25 igo zituen eta %5,56an utzi


zituen. Indiak, berriz, urtea hasi zenetik 25 oinarri puntuko seigarren igoera erabaki zuen eta esku-hartzeko tasa goratu zuen %6,25ean kokatu arte.

Banku zentraletako erreferentzia tasak Ehunekoak


AEB




Eurogunea



Erresuma Batua



Japonia




Iturria: Espainiako Bankua.

Interes tasa apalek, bereziki AEBetan, eta ekonomia aurreratuek aurtengo bigarren erdian bilakaera ahula izango dutelako aurreikuspenak nazioarteko inbertitzaileen kapitala garapen bidean dauden herrialdeetara desbideratu zuten, herrialde horietako dibisak eta merkatuetako aktiboen balioa igoaraziz. Lehiakortasuneko galeraren ondorioz esportazioak jaitziko zirelako beldurrez, Txina, Japonia, Hego Korea, Taiwan, Brasil eta Kolonbiako gobernuek merkatuetan


eskua hartu zuten atzerriko kapitalaren sarrera kontrolatzeko, “dibisen gerra” gisa ezagutu dena piztuz. Izan ere, AEBek Txinari egotzi zioten yuanaren balioa jaitsi izana salmentak areagotzeko. Bitartean, Fed-ek merkatuak dolarrez bete zituen eta estatubatuar diruak inoizko baliorik apalena markatu zuen Asiako beste txanpon batzuen aldean. Euroa gerra horren erdian zegoen eta EBZk ezer gutxi egin ez zuenez, oso nabarmen irabazi zuen balioa, eremuaren lehiakortasuna arriskuan jarritz.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena



Iturria : Espainiako Bankua.

Hain zuzen ere, euroak maiatzean eta ekainean balio apalak markatu zituen eta dolarrarekiko truke tasa 1,20 dolarretatik hurbil kokatu zen, baina irailetik aurrera balio irabazia etengabea

izan zen. Europako finantza merkatuetan zegoen konfiantza berreskuratu zen heinean eta Erreserba Federalak suspertzeko egitasmo berria iragartzen zuen neurrian, euroaren balioa igotzen hasi zen 1,41 dolarren truke saltzera iritsi arte. Balio irabazteko joerak azaroa arte iraun zuen. Hilabete horretan, Irlandako banku merkatuaren egoera zailak eta Portugaleko finantzen ahultasunak joera hori aldarazi zuten eta euroak balioa galdu zuen berriro.

Orobat, finantza merkatuaren ezegonkortasunaren ondorioz, ordura arte carry trade eragiketen finantzazio iturria ziren txanponak funtsen hartzaile bihurtu ziren. Horiek horrela izanda, yena eta Suitzako frankoak goranzko joera etengabea ezagutu zuten ekainetik aurrera eta baliorik gorenak markatu zituzten euroaren aldean abuztuan eta irailean. Hain zuzen ere, Suitzako frankoa euro bakoitzeko 1,30 frankora jaistera iritsi zen eta dolarraren balio bera lortu zuen irailaren amaieran. Japoniako dirua, berriz, euro bakoitzeko 110 unitateen inguruan kokatu zen eta dolar baten truke 83 yen besterik ez ziren ordaindu behar.


Europako finantza erakundeek uztailean egin zituzten indar proben emaitza onak ezagutu eta gero, burtsa merkatuek gora egin zuten Atlantikoaren bi aldeetan. Hala eta guztiz ere, hobekuntza hori ezin izan zen finkatu. Ondorengo hilabeteetan, burtsako indizeek ohiz kanpoko eta batasunik gabeko portaera jasotzen jarraitu zuten, eta gorabehera handiak bizi zituzten merkatu gehienetan. Zor subiranoaren krisiak, Portugaleko finantza egoeraz argitaratu ziren datuekin berritu baitzen, euroak dolarraren aldean lortu zuen balio irabaziak eta Irlandako erreskateak eragin kaltegarria izan zuten errenta aldakorrean. Izan ere, azaroaren azken egunetan, Irlandako erreskatearen albistea argitaratu ondoren, Europako zor subiranoaren egoeraz zegoen ziurgabetasuna areagotu zen eta burtsak amildu ziren. Zehazkiago adierazita, Espainian IBEX 35ak 10.000 puntuko erreferentzia galdu zuen eta abuztutik aurrera izan duen beherakadarik bortitzena jasan zuen. Dow Jonesek berak ere 11.000 puntuak galtzeko puntuan egon zen. Garatzen ari diren merkatuetan, ordea, ekonomiaren bilakaera onak eta interes tasa altuagoek kapitala erakarri zuten, irabazi handiak eraginez.

Bankuen arteko merkatuaren interes tasak egonkor mantendu ziren uztailaren eta irailaren arteko epealdian. Hala ere, urritik aurrera erreferentziako tasek hazteko joera leuna hartu zuten. Berankortasunaren igoerak eta EBZk likidezia lortzeko orduan ezarri zituen murrizte handiagoek banku erakundeek diferentzialak eta, horiekin batera, euriborra igo zitzatela eragin zuten. Hain zuzen ere, urtebete baterako euriborra %1,541en amaitu zen azaroan, 2009ko ekainetik inoiz izan duen tasarik gorena baita. Igoera horren atzean diferentzialen gehikuntza zegoen eta ez EBZren esku-hartzeko interes tasen gorakada bat. Beraz, euriborraren igoera ez zen oso garrantzitsua izan eta beraren eragina hipoteken garestitzean oso mugatua izan zen oraingoz. Abenduan, nolabaiteko egonkortasuna hauteman da euriborraren bilakaeran, baina


ezin da alboratu goranzko joera arinarekin jarraituko duela eta hilabetearen amaieran %1,55aren inguruan egongo dela.

Interes tasen bilakaera %

Hiru hilabeterako euriborra



Urte baterako euriborra




Iturria: Espainiako Bankua.

Ekonomia krisiaren aurreko hedatze aldiaren arlo pribatuak lortu zituen zorpetze maila altuen ondoren, zorrak kentzeko fase sakon bat gertatu zen. 2007ko hirugarren hiruhilabetetik 2010eko lehen hiruhilabetea arte, arlo pribatuari emandako kredituak moteltzeko joera garbia erakutsi zuen eta hiruhilabete batzuetan hazkunde tasak negatiboak izatera iritsi ziren. 2010eko bigarren hiruhilekoan, joera hori irauli zen, eta hazkunde oso txikia izan bazen ere (%0,9 bakarrik igo zen), nahiko izan zen tasa positiboak berreskuratzeko. Hirugarren hiruhilabetearen, kreditu pribatuak gehikuntzak joera positibo hori finkatzea lortu zuen, nahiz eta, oraingoz, eskariaren ahultasunak eta eskaintzaren baldintzak gogortu izanak hazkunde biziago bat eragotzi zuten. Horiek horrela, kreditu pribatuak %0,9 hazi ziren, bereziki hipoteketarako mailegucen esker, azken hilabeteetan suspertu zirelako.


EAEko kutxen berankortasunaren bilakaerak krisi ekonomikoaren eragin kaltegarria erakusten jarraitu zuen. 2007ko amaieran, ekonomia atzeraldia hasi zenetik, berankortasuneko tasak goranzko joera leuna baina etengabea izan du, 2008ko hasieran %0,88 izatetik 2010eko hirugarren hiruhilekoan %3,12ra izatera pasatu baita. Tasa hori bi urteko epean hirukoiztu baino gehiago egin den arren, maila nahiko apala da oraindik, are gehiago Espainian dagoen berankortasunarekin alderatzen bada, hirugarren hiruhilekoan %5,5 gainditu zuelako.

Kreditu eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, gordailu pribatuek azken bi urte eta erdian izan ohi duten beheranzko ibilbideari jarraipena eman diote, eta %1,6 bakarrik igo ziren, 2006ko erdialdetik inoizko tasarik apalena delarik. Aurrezki kutxetan sartutako ezarpenek berririo erakutsi zuten bilakaerarik onena, EAEko eragileek likidezaren aldeko hautua egiten duten seinale. Hala ere, eta oraindik emaitza etsigarriak jaso zituzten arren, eperako gordailuen bilakaeran begi bistako hobekuntza hauteman zen. Handizkako merkatuek zituzten finantzazio arazoek finantza erakundeak behartu zituzten produktuengatik eskaintako interes tasak igotzera eta horrek, bere aldetik, epe luzerako gordailuen bilketa bultzatu zuen.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Ingurunerako aurreikuspenak

Consensus Forecast erakundearen arabera, munduko ekonomia %3,8 haziko da 2010. urtean eta %3,1, berriz, 2011n. Hala ere, susperraldi hori modu ezberdinetan gauzatuko da ekonomia eremuen artean. Izan ere, hazkunde horri ekarpen handiena egingo duten eskualdeak garapen bidean dauden herrialdeak izango dira, bereziki Asiako ekonomia handienak. Beste aldetik, herrialde garatuen susperraldia zalantzaz beterikoa eta denbora luzekoa izango da, halako moldez ezen eremu batzuetan ekonomiaren hazkundea ez baita nahiko izango enplegua sortzeko. Beraz, munduko ekonomia nagusiek atzeraldia gainditu dutela ematen du, baina haietan guztietan ziurgabetasun handia dago oraindik susperraldiaren erritmoaren sendotasunaz.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasa


	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2009	2010	2011	2009	2010	2011
Munduko ekonomia	-1,8	3,8	3,1	1,3	2,6	2,6
AEB	-2,6	2,7	2,4	-0,3	1,6	1,4
Kanada	-2,5	3,0	2,4	0,3	1,7	2,1
Japonia	-5,2	3,0	1,2	-1,4	-0,9	-0,3
Eurogunea	-4,0	1,6	1,4	0,3	1,5	1,6
Europar Batasuna	-4,1	1,7	1,5	0,7	1,7	1,8
Alemania	-4,7	3,4	2,1	0,4	1,1	1,5
Espainia	-3,7	-0,3	0,6	-0,3	1,6	1,4
Frantzia	-2,5	1,6	1,5	0,1	1,6	1,5
Herbehereak	-3,9	1,8	1,2	1,2	1,1	1,3
Italia	-5,1	1,1	1,0	0,8	1,5	1,7
Erresuma Batua	-5,0	1,7	2,0	2,2	3,2	2,7
Asia eta Ozeano Barea	1,9	6,4	5,1	0,8	2,2	2,3
Ekialdeko Europa	-5,2	3,9	3,9	6,3	6,2	5,9
Amerika Latinoa	-1,7	5,5	4,0	5,7	7,3	7,1

Iturria: Consensus Forecast (2010eko azaroa).

Estatubatuar ekonomiari dagokionez, 2010ean %2,7 haziko dela aurreikusten da, 2011. urtean %2,5aren inguruko hazkunde bat lortzeko. Finantza alorreko arazoak ez dira erabat konpondu oraindik eta beharrezkoa da gardentasuna finantza sisteman sustatzea. Orobat, finantza sistemak familien aurrezkiaren eta enpresen inbertsioaren arteko bitartekaritza lana egoki bete behar du estatubatuar ekonomiak hazkunde tasa bizi bat berreskura dezan. Eskari pribatuak lehenbailehen bereganatu behar du ekonomiaren bultzagile nagusiaren papera, behin administrazioaren politika hedakorrak kendu eta gero.

BPGren bilakaera eremuka

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria : NDF. 2010eko urriko aurreikuspenak.

Japonia oso zabalik dago kanpoko ingurunera eta nazioarteko merkataritzaren susperraldi bizkorra mesedegarria izan da ekonomia hori krisitik indartsu ateratzeko. 2010. urterako, hazkunde tasa %3,0aren ingurukoa izango da, baina 2011n %1,2an geratuko dela aurreikusten da. Analisisgileak ezkorak dira japoniar ekonomiaren bilakaeraz eta hasitako susperraldia arriskuan jarri dezaketen hainbat faktore aipatzen dituzte. Kanpotik, AEBetako eta Europako ekonomiei eragiten dizkieten ziurgabetasunek Japoniako ekonomia baldintzatzen dute. Barrutik, barne eskariak ez du nahiko sendotasunik erakusten kreditu murritzeko, langabezia handiagoko eta deflazio amaigabeko testuinguru batean.


Txinako ekonomiaren hazkundera 2010ean eta 2011n sendoa izango dela aurreikusten da, baina erabaki zailak hartu beharko ditu politika ekonomikoaren esparruan, munduko susperraldiaren ahultasunarengatik. Datozen urteetan, Txinak ez dio uko egingo ekonomia sustatzeari eta, bereziki, barne eskaria eta eskualdeen arteko hazkunde orekatua bultzatuko ditu. Gizarte segurantzaren eta atzeratuen dauden eremuetan azpiegiturazko inbertsioak areagotzea ezinbestekoak izango dira hazkundera barne eskariaren bidez bultzatzeko. Hala eta guztiz ere, Asiako erraldoiak finantza eta higiezinaren burbuilak saihestuko dituen hazkunde eredu bat ezarri beharko du, ekonomia jardueraren bat-bateko narriadura baten arriskua gutxitzeko. Txinako eta bere ingurunekeo ekonomien moteltzea oso kaltegarria izango zen munduko ekonomiaren susperraldirako.

Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Munduko atzeraldia hobekien saihestu duten herrialdeetako bat, zalantzarik gabe, India da. Halaber, nazioarteko erakundeek hazkunde tasa altuak iragartzen dituzte herrialde horretarako datozen urteetan. Garapen bidean dauden Asiako beste ekonomietan gertatzen dena ez bezala, Indian ez da beharrezkoa izango barne eskaria sustatzea. Esportazioek hazkundeari egiten dioten ekarpena azken urteetan hazi bada ere, ekonomiaren motore barne eskaria da. Indiako hazkunde potentziala arriskuan jar dezakeen arazo bat inflazioa da. Prezioen maila igotzen jarraitzen bada, Indiako banku zentralak ezinbestez interes tasak igo beharko ditu eta horrek azken kontsumoaren eta enpresen inbertsioaren beherakada eragingo luke.

Eurogunean, 2010eko hazkunde tasa %1,6aren inguruan kokatuko da eta 2011. urtean zertxobait apalduko da %1,4an kokatu arte. Hazkundera oso indartsua ez izateko arrazoiak honako hauek dira: higiezinaren arloko doikuntza, finantza sistemak kreditu bat emateko jarri dituen baldintza zorrotzak, enpresen inbertsioaren ahultasuna eta kontsumitzaileen zuhurtasuna langabezia tasak bere horretan mantendu edo, kasu batzuetan, igo egin direlako. Eurogunearen barnean, bi portaera hautematen dira ekonomiaren etorkizuneko bilakaerari dagokionez. Alde batetik, kanpo defizit txikiagoa eta etorkizun hobea duten herrialdeak daude. Beraientzat espero diren hazkunde tasak eremuaren batez bestearen antzekoak edo handiagoak izango dira 2010. urtean. Beste aldetik, aurreko hazkundera higiezinaren alorrean oinarritu zuten edo kontu publikoetan arazoak zituzten herrialdeek zailtasun handiagoak izango dituzte, eta 2010. urtean gehikuntza tasak berriro negatiboak izango dira edo positiboak izatekotan hutsalak izango dira. Horri gehitu behar zaio Europako ekonomia batzuen kontu publikoen sendotasunaz zabaldu den ziurgabetasuna eta horrek hasi berria den susperraldian izan dezakeen eragina. Doikuntzako planak, gastu publikoa murriztuko duten heinean eta zergen bidezko diru sarrerak areagotuko dituzten neurrian, eta inbertitzaileen mesfidantza arrisku handiak dira eta hazkunde hutsaleko aldi luze bateko edo, okerragoa izan zitekeena, beste atzeraldi bateko posibilitatea mahai gainean jartzen dute.

Europako Banku Zentralaz, eskariaren ahultasunak maila apaletan atxikiko ditu prezioak. Hori horrela izanda, moneta agintariek margena daukate moneta politikaren normalizazioa beste modu batean pentsatzeko, hala interes tasa ofizialaren mailari dagokionez nola kreditua sustatzeko ezohiko neurriak aztertzeke.

Consensus Forecasteko adituen arabera, Espainiak %-0,3ko urte arteko aldakuntza tasa jasoko du 2010. urtean eta %0,6aren inguru haziko da 2011. urtean. Antzeko iragarpenak egin dituzte beste analisigile batzuek ere, hala nola Funcasen taldean parte hartzen dutenak. Kasu horretan, batez beste uste dute espainiar ekonomia %-0,2 jaitsiko dela aurrean eta gero hobekuntza txikia lortuko duela 2011n, %0,7 hain zuzen. Mendebaldeko ekonomien artean, espainiarra izango da 2010ean beherakada jasoko duten bakanetako bat.

ESPAINIAREN ZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2010eko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoan eta bestean	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
AFI	-0,2	0,6	1,3	0,9	-0,1	-0,9	-7,4	-3,1	-11,1	-6,7	2,3	2,5
BBVA	-0,2	0,9	1,6	1,0	0,2	-0,5	-7,2	-1,8	-10,5	-4,6	3,7	4,1
Caja Madrid	-0,2	0,4	1,1	0,4	-0,2	-1,2	-7,6	-2,0	-11,2	-4,7	1,7	1,3
Cataluyacaixa	-0,3	0,7	1,1	0,4	-0,2	-1,2	-7,1	-1,0	-11,0	-3,8	1,7	1,8
Cemex	-0,2	0,3	1,1	0,6	-0,1	-2,6	-8,0	-4,0	-11,6	-7,4	1,3	-1,5
CEEM-URJC	-0,3	0,6	1,0	0,8	-0,4	-1,0	-7,6	-2,0	-9,5	-4,5	1,0	3,0
CEPREDE-UAM	-0,2	0,9	1,1	1,3	-0,3	-0,7	-7,4	-0,5	-10,9	-4,0	1,8	3,5
Esade	-0,5	0,7	---	1,0	---	-1,0	---	-2,0	---	---	---	---
FUNCAS	-0,2	0,8	1,2	1,0	-0,2	-1,1	-7,6	-3,8	-11,1	-7,9	1,5	0,3
ICAE-UCM	-0,3	0,5	1,2	1,0	-0,2	-1,5	-7,8	-2,8	-11,9	-8,2	2,4	5,1
IEE	-0,3	0,5	1,2	0,7	0,0	-1,0	-7,4	-2,0	-11,0	-6,0	2,2	2,2
IFL-UC3M	-0,2	0,4	1,2	1,2	0,0	-0,1	-7,5	-3,9	-11,1	-7,5	1,9	2,7
Intermoney	0,0	1,2	1,8	2,1	0,3	-0,6	-7,1	-1,4	-10,6	-3,8	4,5	3,9
La Caixa	-0,2	0,7	1,2	1,1	-0,3	-1,5	-7,2	-1,7	-10,9	-5,5	2,7	6,1
Repsol	-0,2	0,7	1,1	0,5	-0,1	-1,4	-7,7	-3,6	-11,2	-6,7	1,7	1,4
Santander	-0,3	0,8	1,2	0,8	0,2	-0,4	-6,9	-3,7	-9,8	-7,0	4,0	3,1
Solchaga Recio	-0,2	0,8	1,2	1,1	-0,2	-1,2	-7,6	-3,0	-11,0	-7,8	1,3	3,8
Batez bestea	-0,2	0,7	1,2	0,9	-0,1	-1,1	-7,4	-2,5	-10,9	-6,0	2,2	2,7
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2010-09)	-0,3	1,3	0,5	1,8	0,6	-1,6	-8,5	-1,5	-11,7	-4,5	1,8	4,2
Esp. Bankua (2010-03)	-0,4	0,8	0,2	1,0	1,2	-0,2	-9,8	-3,5	-12,7	-7,2	-3,2	1,1
E. Batzord. (2010-11)	-0,2	0,7	1,1	0,9	0,0	-1,3	-7,9	-3,1	-11,4	-7,0	3,0	3,7
NDF (2010-10)	-0,3	0,7	0,8	0,9	-0,1	-1,0	-6,8	-1,6	---	---	---	---
ELGE (2010-11)	-0,2	0,9	1,5	1,7	0,3	-0,8	-6,8	-1,8	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2010eko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
AFI	-1,1	-0,4	9,1	4,9	4,8	1,0	1,7	1,4	-2,3	-0,2	20,1	20,7
BBVA	-0,7	0,0	10,0	8,0	6,9	3,8	1,8	1,7	-2,3	-0,3	20,1	20,6
Caja Madrid	-1,0	-0,5	9,0	5,8	4,3	2,4	1,7	1,6	-2,4	-0,8	20,1	20,5
Catalunyacaixa	-1,1	-0,2	8,9	2,9	4,7	0,7	1,7	1,8	-2,1	0,3	19,9	19,8
Cemex	-1,3	-1,1	8,8	5,0	4,1	0,5	1,7	1,7	-2,8	-0,1	20,5	20,0
CEEM-URJC	-1,3	-0,2	9,5	6,2	4,5	2,8	1,6	1,3	-2,2	-0,1	20,0	20,4
CEPREDE-UAM	-1,1	0,7	9,2	4,7	4,7	3,1	2,4	1,7	-2,0	0,1	19,9	20,3
Esade	---	-0,1	---	4,0	---	0,5	---	1,2	---	---	---	20,0
FUNCAS	-1,1	-0,5	9,2	5,8	4,8	0,9	1,7	1,5	-2,3	-0,4	20,0	20,4
ICAE-UCM	-1,2	-0,4	9,3	4,8	5,1	1,5	1,6	1,9	-2,6	-0,3	20,1	20,5
IEE	-1,3	-0,2	8,5	5,5	4,5	2,0	1,6	1,6	-2,2	-0,5	20,1	20,3
IFL-UC3M	-1,0	-0,4	9,1	4,1	4,8	0,9	1,7	1,6	-2,3	-0,3	20,1	20,7
Intermoney	-0,5	0,8	8,6	4,6	6,0	2,8	1,4	1,3	-2,5	-0,2	19,8	18,7
La Caixa	-1,1	-0,1	10,1	7,0	5,5	3,8	1,7	1,5	-2,3	-0,3	20,0	20,2
Repsol	-1,2	-0,8	9,4	6,1	4,6	-0,1	1,7	1,7	-2,3	-0,4	20,1	20,0
Santander	-0,9	-0,4	8,3	7,0	5,0	2,1	1,7	1,7	-2,4	0,1	19,9	19,9
Solchaga Recio	-1,1	-0,3	9,2	5,5	4,9	1,5	1,7	1,9	-2,2	-0,1	20,0	20,1
Batez bestea	-1,1	-0,2	9,1	5,4	4,9	1,8	1,7	1,6	-2,3	-0,2	20,0	20,2
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2010-09)	-1,6	0,4	9,3	6,4	3,3	2,9	---	---	-2,2	0,3	19,8	19,3
Esp. Bankua (2010-03)	-1,9	-0,3	5,0	4,8	-1,5	0,7	1,1	1,1	-2,6	-0,3	19,4	19,7
E. Batzord. (2010-11)	-1,2	-0,4	9,1	5,5	4,5	1,4	1,7	1,5	-2,3	-0,3	20,1	20,2
NDF (2010-10)	-1,1	0,0	8,6	4,1	4,7	1,2	1,5	1,1	-2,3	0,2	19,9	19,3
ELGE (2010-11)	-0,7	0,4	9,2	8,1	6,4	5,8	1,5	0,9	---	---	19,8	19,1



Iturria: Funcas.

Barne eskariak ez dio ekarpen positiborik egingo BPGren hazkunderari aurreikusitako epealdi osoan eta kanpo eskaria izango da Espainiako ekonomiaren bultzagile nagusia. Merkataritzako bazkide nagusien susperraldiak espainiar esportazioei mesede egingo die. Aitzitik, inportazioak gutxiago haziko dira Espainiako barne eskaria oso gutxi haziko delako.

Azken kontsumoko gastua ez da indartuko 2010ean eta are gutxiago 2011n, urte horretan osagai horrek moteltzeko joera erakutsiko duelako. Espainiako familiek, 2010eko lehen seihilekoan bizi zen erosketak aurreratzeko irudikeria igarota, zuhurrago jokatuko dute lanpostua galtzeko arriskua dagoelako eta kreditu bat lortzeko zailtasunak daudelako. Faktore negatibo horiek positiboek baino pisu handiagoa dute. Azken hauen artean, kontsumoko prezioen igoera apala eta finantza merkatuetako interes tasa txikiak aipatu behar dira. Arlo publikoari dagokionez, administrazioaren gastua zorrotz murriztuko da datozen urteetan. Arlo publikoaren zorpetze handiak, beraren narriadura bizkorrak eta, batez ere, joera horri buelta emateko gobernuak duen ahalmenaz zabaldu diren zalantzak bezalako kontu subjektiboek alarma eragin dezakete merkatuetan, Espainiako ekonomiaren etorkizuneko bilakaera kaltetuz. Izan ere, Europar Batzordeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek espainiar agintariak premiatu dituzte defizita zuzentzeko eta kontuen oreka 2013. urtean lortzeko. Ekonomiaren hazkundera ez bada nahiko helburu hori betetzeko, zergetan eta gastu publikoan beste neurri batzuk hartuko direla espero behar da.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria : INE eta CEPREDE.

Enpresarien inbertsioak, berriz, hainbat epealditatik nozitzen duen beherakada leunduko du, baina ez du emaitza positiborik lortuko 2010. urtean zehar ezta 2011n ere. Osagai horren arazo kezkarriena etxegintzan eginiko inbertsioa da. Aurreikusitakoaren arabera, eraikuntzak ez dio ekarpen positiborik egingo hazkunderari urte batzuk igaro arte. Atzean geratu da sektore hau espainiar ekonomiaren bultzagile nagusiaren papera betetzen zuen garaia.

Langabezia izango da Espainiako ekonomiaren arazo nagusietako bat. Langabezia tasa %20,0aren inguruan kokatuko da bai 2010ean bai 2011n. Langabezia maila altua oztopo izango da familien kontsumoa suspertzeko, baina aldi berean administrazioak aurrekontuaren zati handi bat langabezi sariak ordaintzeko.

EAErako aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren hazkundeaz 2010 eta 2011 urteetarako egin dituen aurreikuspenak eguneratu ditu. Azken hilabeteetako datuek goranzko berrikusketa txiki bat behartu dute duela hiru hilabete aurreratutako zenbatekoen aldean. Estimazio berri hauetan, BPGren batez besteko hazkundera %0,3 izango dela 2010ean aurreikusten da. 2011. urterako, aldakuntza tasa %1,5ean kokatzen da, ekonomiaren hazkunderari bultzada bat emanez. Hala ere, aurreikuspen hauetan estimatu den bilakaerak susperraldia astiro gauzatuko dela iragartzen du. Dena dela, gehikuntza erritmoa aurreikuspeneko aldi osoan bizkortuko dela espero da.

Barneko azken kontsumoa areagotuz joango da datozen hiruhilekoetan, gastu pribatuaren susperraldiari esker. Familien kontsumoa baldintzatzen duen faktorea konfiantza maila da eta hau 2009. urtean baino maila altuagoan dago. Aitzitik, langabezia tasa oztopo garrantzitsu bat da kontsumo pribatuak hazkunde tasa nabarmenak lortu ahal izateko eta zuhertasuna areagotzen du erosteko erabakiak hartzeko unean. Administrazio publikoen kontsumoari dagokionez, beherakada esanguratsua aurreikusten da aurrekontuetako oreka berreskuratzeko helburuarengatik, baina horrek eragina izango du BPGren hazkundera, ekonomia suspertzeko aukerak murriztuko dituelako.

Kapitaleko eraketa gordinak bere jaitiera gutxituko du eta 2011ren amaiera arte itxaron beharko da aldakuntza tasa positiboak jasotzen hasteko. Finantza krisiak eragin duen kreditu eskasiak barne eskariaren osagai horren hazkunde ahalmena murriztuko du. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak bizitasun handiagoa erakutsiko du, munduko ekonomia

nagusien susperraldiak bultzatuko duelako. Hala eta guztiz ere, eraikuntzak, bereziki egoitzetako eraikuntzak, denbora beharko du berriro suspertzeko eta oso zaila izango da nozitu duen narriadura azpiegitura zibileko egitasmo berriein konpentsatzea.

EAE-KO EKONOMIAREN AZALPENAK (2010eko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011
BPG	-0,8	0,5	0,6	0,8	0,3	1,2	1,4	1,4	1,9	1,5
Azken kontsumoa	-0,4	1,4	0,9	0,9	0,7	0,9	1,0	1,2	1,3	1,1
Kontsumo pribatua	-0,6	1,4	1,2	1,2	0,8	1,3	1,4	1,6	1,6	1,4
Kontsumo publikoa	0,5	1,4	-0,2	-0,3	0,3	-0,3	-0,3	0,0	0,2	-0,1
Kapital eraketa gordina	-9,8	-6,5	-2,9	-1,8	-5,2	-1,3	-0,6	0,4	1,1	-0,1
Barne eskariaren ekarpena	-2,7	-0,5	0,0	0,2	-0,7	0,3	0,5	0,7	1,0	0,6
Kanpo saldoaren ekarpena	1,8	0,9	0,6	0,6	1,0	0,9	0,9	0,7	0,9	0,9
Lehen arloa	-26,6	-4,2	18,3	5,0	-1,9	6,3	8,3	-8,8	3,3	2,3
Industria	-2,3	0,9	1,4	1,8	0,4	2,0	2,0	2,2	2,5	2,2
Eraikuntza	-5,4	-5,5	-6,1	-5,0	-5,5	-3,0	-2,7	-2,5	-1,9	-2,5
Zerbitzuak	0,5	0,9	0,7	0,8	0,8	1,1	1,3	1,5	1,8	1,4
Balio erantsi gordina	-0,9	0,3	0,3	0,5	0,0	1,0	1,2	1,2	1,7	1,3
Ekoizkinen g. zerga garbiak	-0,1	2,2	3,6	3,0	2,2	3,0	2,9	2,8	3,3	3,0
BPGren deflatoarea	0,9	1,5	2,3	2,2	1,7	2,3	2,3	2,5	2,7	2,5
Enplegua	-1,8	-0,6	-0,2	0,0	-0,7	0,2	0,4	0,5	0,8	0,5
Langabezia tasa	8,9	9,1	8,8	8,8	8,9	8,8	8,6	8,6	8,4	8,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Barne eskaria, hainbat hiruileko jarraian hazkundeari ekarpen negatiboa edo hutsa egin ondoren, ekarpen positiboak egiten hasiko da, seguruena 2010eko amaieratik aurrera. Kanpo eskariak, berriz, hamarren positiboak ekarriko dizkio BPGren hazkundeari 2010ean eta 2011n. Kanpo merkataritzaren osagaien artean, esportazioen hazkundera areagotuko da ingurune ekonomiko hobera egingo dutelako. Aitzitik, inportazioak gutxiago haziko dira, EAEko barne eskaria suspertuko den neurrian.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekonomiaren adar guztiek nolabaiteko susperraldia ezagutuko dute eta, salbuespena eraikuntza delarik, balio erantsi gordinaren hazkundeari ekarpen positiboak egingo dizkiote. Industriak hazkunde tasa positiboa baina txikia lortuko du 2010. urtean eta hurrengo urtean hazkunde hori finkatuko du, EAEko ekonomiaren sektore dinamikoena

izateko. Eraikuntzan, doikuntza luzea eta gogorra izaten ari da hala ekoizpen nola lanpostuen kopurua nabarmen jaitsi direlako. Arlo horrek hoberantz egingo du pausuz pausu, baina datozen hiruhilekoetan aldakuntza tasa negatiboak jasoko dituela aurreikusten da. Zerbitzuek, berriz, susperraldi garbiko joera erakutsiko dute, nahiz eta epe laburrean oraindik ez dituen lortuko ekonomia atzeraldiaren aurreko emaitzak berreskuratzea.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Analisia lan merkatura eramanez, Eusko Jaurlaritzak argitaratu dituen aurreikuspen berriek iradokitzen dute 2010eko amaieran enplegu galera bukatuko dela eta 2011n hasiko direla lanpostuak sortzen. 2010. urte osorako, enpleguaren batez besteko aldakuntza tasa $-0,7\%$ an kokatzen du aurreikuspenak. Horrek esan nahi du 7.000 lanpostu inguru galduko direla urte horretan, aurreko hilabeteetan espero zena baino galera txikiagoa delarik. 2011. urtean, ekonomia jardueraren susperraldiaren ondorioz 5.000 lanpostu inguru sortuko dira. Langabezia tasari dagokionez, aurreikuspen berrian beherantz zuzendu da tasa hori eta 2010ean $8,9\%$ an kokatuko dela espero da, gero, 2011n, $8,6\%$ ra jaisteko.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eszenategi ekonomiko hori osatzeko hainbat hipotesi egin dira nazioarteko ekonomia nagusien etorkizuneko bilakaeraz, espero den inflazio tasaz, euroak dolarren aldean izango duen truke tasaz eta Europako Banku Zentralak bideratuko duen politikaz, merkatuetako interes tasak baldintzatuko dituelako.

Analisigileen ustez, 2011ko amaieran hasiko da Europako Banku Zentrala interes tasak igotzen. Norabide aldaketa horrek adieraziko du Eurogunearen susperraldi orokorra finkatuta dagoela. Hala eta guztiz ere, Europako moneta agintaritzak zalantzak izan ditzake erabaki hori hartzeko orduan, Euroguneko eremuan hobekuntza erritmo ezberdinak hautemango direlako. Interes tasak goizegi igoko balitu arazo larria izango litzateke susperraldia sendotu gabe daukaten herrialdeetako gobernuentzat eta kontsumitzaileentzat.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2010eko azaroa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	10.I	10.II	10.III	10.IV	2010	11.I	11.II	11.III	11.IV	2011
AEB	2,3	1,8	1,1	1,1	1,6	1,0	1,2	1,5	1,2	1,2
Eurogunea	1,1	1,5	1,7	1,9	1,6	2,0	1,8	1,8	1,8	1,9
Espainia	1,1	1,6	1,9	2,3	1,7	2,1	1,9	1,3	1,0	1,6
EAE	1,0	1,5	1,9	2,2	1,6	2,5	2,1	1,6	1,3	1,9

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea).

Europako diruak estatubatuar dolarrak baino gorago kotizatuko du oraindik. Izan ere, 2010eko batez bestean euroa 1,32 dolarren truke salduko da eta balioa galduko du hurrengo urtean 1,25 dolarretara jaitsi arte. Hala ere, agintariek merkatuetara transmitituko duten konfiantzak baldintzatuko du dibisen nondik norakoa, balioa irabaziz edo galduz. Euroguneko ekonomiek ezarriko dituzten neurri zuzentzaileak sendoak eta sinesgarriak badira, euroak balioa irabaziko du. Bestela, europar diruaren balio galera etorriko da, inbertitzaileek beste dibisetan izendatutako aktiboak nahiago dutelako.

